

...eta!
Kittoa!

2018-V-18

1058 zkia.

Tantanez Tantan eskuz-esku bidea eginez

R.P.S. 253/14

Beitu
Zentro Optikua

J. Etxeberria, 13
943 700 230

10 urte
zure entzumena zaintzen

Audifonoak Probatu doan
Konpromiso barik

%50 eko
deskontua 2. audifonoan





IES UNIBHI

HEZIKETA ZIKLOAK

A ETA D EREDUAK

Aurrematrikula epea: Ekainaren 4tik 15era
Matrikula epea: Uztailaren 12tik 18ra

PROIEKTUAK ETA JARDUERAK

- Praktikak Atzerrian (ERASMUS+)
- Lanbide-Heziketa Duala (HEZIBI)
- Ikaskuntzak Eszenatokiak
- Osasunarentzako Programa
- Enpresa Birtuala
- UNI Encounter
- UrratsBat
- Hizkuntzaren Normalkuntza
- Nazioarteko Ikasle-trukea
- Ikasle Lan Poltsa



www.facebook.com/iesunibhi/



[//twitter.com/UniEibarErmua](https://twitter.com/UniEibarErmua)



[/user/UniEibarErmua1](https://www.youtube.com/user/UniEibarErmua1)

www.uni.eus
idadkaritza@uni.eus
Tel. 943208444

HEZIKETA FISIKOA

- * Egokitze Fisikoa (*Goi maila*)
- * Gizarte eta Kirol Animazioa eta Irakaskuntza (*Goi maila*)

INFORMATIKA

- * Sistema Mikroinformatikoa eta Sareak (*Erdi maila*)
- * Sareko Informatika Sistemen Administrazioa (*Goi maila*)
- * Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena (*Goi maila*)
- * Web Aplikazioen Garapena (*Goi maila*)

MARKETING ETA MERKATARITZA

- * Merkataritza Iharduerak (*Erdi maila*)
- * Nazioarteko Merkataritza (*Goi maila*)

ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA

- * Administrazio Kudeaketa (*Erdi maila*)
- * Administrazioa eta Finantzak (*Goi maila*)
(goizez eta eskaintza partzialen arratsaldez)

ATE IREKIAK
Maiatzaren
26an
(11:00-13:00)

BAIETZA SORTZEN

KONPROMISO ETA ILUSIOAK
ERABERRITZEN



EKITALDIA

MAIATZAK 19

17:30 · BILBAO ARENA



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Leire Iturbe.

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– Galdaramiño igoeran Urkiko auzolana helburu –

Aurten ere badator Galdaramiño igoera, Urki auzoko mendietan zehar saltoka edo oinez ibiltzeko parada ezin hobea. Horrela, ekainaren 10ean, goizeko 09:30ean, X. edizioa ospatuko dugu, zenbaki biribila ezpairik gabe.

2009. urtean lehen urratsak eman genituen, hasierako helburua Urki auzoko jaiei kirol aktibitate bat eskaintzeko asmoz. Zenbakieki begiratu barik, elkarlaguntzari begiratu izan diogu hasieratik. Horrela Urkiko Jai Batzordea, Eibarko Udala, Eibarko Klub Deportiboa eta boluntario taldearen laguntzarekin, besteak beste, proiektua aurrera atera genuen.

2012. urtean beste urrats bat eman genuen: Txiki-krosa. Ume eta gazteentzat ere antzeko jarduerak bat eskainiz, baina eurei egokitutakoa. Beti ere kirola eta osasuna uztartuz, eta lehiakortasuna alde batetara lagata. Elkarlana, auzokideon arteko begirunea, besteekiko enpatia eta joko garbia. Horiek dira gazteei transmititzen saiatzen garen baloreak.

2013an, bestealde, lehen baldiz, **Atzegiko** lagunen parte hartzea izan genuen, eta ordutik hona egun ederra igarotzen dute Eibarko mendietan. Gi-

puzkoako Adimen Urritasuneko Elkarteko lagunekin guztion gizarteratzea eta integrazioa lantzen saiatzen gara, eurentzat ibilbide egokitu bi prestatuta, eta Eibarko Txolarteko lagunek trofeoak banatzen laguntzen digute.

Proiektuak aurrera ateratzeko bere zailtasunak dauzka: ideiak proposatzea, eztabaidatzea, arrazoiekin defendatzea eta adostasunetara iristek ahalegin handia eskatzen du, baina merezi du. Merez du auzokideen artean eraikitako jarduerak elkarbizitza aberasteko balio dutela ikusteak. Merez du hainbat belaunalditako jendea elkartzen garen auzotarren ikuspegia aberasten ari garela sentitzeak. Merez du emakumeen parte hartzea, bai antolakuntzan bai proba berean, gero eta handiago dela ikusteak. Merez du inguruko tokietatik datozenekin batera sortzen saiatzen garen giro osasuntsua antzemateak.

Gonbidatuta zaudete, beraz, Urkiko jaietan inguruko mendiak ezagutzera (Galdaramiño, Azkonabizta, Topinburu, Ilordo). Eskerrik asko laguntzaile eta boluntario kuadrila guztiari!

Urkiko Jai Batzordea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MANDEULI. - Mando, zaldi eta ganadu artean ibiltzen den euli haundia. Zastada haundia egiten du. "Mandeulixari, akabatzeo, burua kendu bihar jako, bestelan, eskuakin golpia jota, ez da hiltzen".

MANGUTSIK. - Manga motzean. "Ebateko moduko hotza eguan eta han agertu zan mangutsik, txistua jotzen".

astean esanak

"Dagoeneko ez dago tokirik bertan galtzeko modukorik; gehien jota, gure etxea eta gure lagunena izan daitezke babes bakarrak, sekretuak gordetzen dituzten bakarrak, beste toki guztiak 6.000 aldiz fotografiatu dituztelako. Katu bakoitzak ere beste hainbeste argazki ditu, baita arratoiek eurek ere. Venezian orain ipini dituzten torno horiek ere ez dituzte turistak uxatuko, euren ibilbidea hamar minututan luzatu besterik ez. Egitan uste duzue turismoa gerarazteko neurria dela? Dirua ateratzeko besterik ez da-eta! Venezian 54.000 biztanle ditu eta urtero 30 milioi turista hartzen dituzte. Axolarik ere ez!"

(DONNA LEON, IDAZLEA)

"Saso batean ltxaropen Telefonora emakumeek deitzen zuten gehiago; egunean, berriz, deietako erdiak gizonetakoak egiten dituzte. Horrez gain, emakumezkoak errazago lasaitzen dira, dei bakarrarekin nahiko dute askotan; gizonetakoak arreta gehiago eskatzen dute. Zergatik? Euren kasuan, laguntza jasotzeko sare soziala ahulagoa delako. Emakumeek erreparo gutxiago dituzte emozioak partekatzeo. Euren buruaz beste egiteko gogoia dutenek ere, bakarrak deitzearekin urrats bat eman dute. Euren tratua egiten ahalgintzen gara: hurrengo egunean deitzeko proposatzen diegu. Zergatik baino, zertarako esateko eskatzen diegu eta horrek deskolokatu egiten ditu"

(ANA XXX, BOLUNTARIOA)

"Aurrehistoria irudikatzeo erakusten digutena aurrejuzkuek beterik dago: emakumezkoak haizuloan lan egiten eta gizonetakoak ehizatzen... Zergatik ez emakumeak erremintak lantzen? Txaman asko andrak dira, Australiak herri aborigenetako pintore ugariekin ere gauza bera gertatzen da. Badago sutan ipintzen nauen beste gauza bat: zergatik pentsatzen dugu teknologia berria sortzeko eta erabiltzeko gaitasunak azkarragoak bihurtzen gaituztela? Badakigu baina, gaur egun, gauzak zelan funtzionatzen duten? Telebista, elektrizitatea... Botoiak sakatu besterik ez dugu egiten; gutxi batzuk besterik ez lukete jakingo makina horiek egiten. Eta naturan solte lagako bagintuzte, hil egingo ginatete"

(MARYLENE PATOU, AURREHISTORIALARIA)

**FELIX MORQUECHO**

Eragileak, bai mesedez

Eibar ekintzaile hitzaren 'e' berberarekin idazten da eta hori ote da gure ezaugarrietako bat. Askotan iraganeko industriari begiratzen diogu horretaz ari garenean, baina gauza berriak asmatu eta mantentzeko orduan, badaude beste esparru batzuk. Kultura eta jai kontuetan adibidea dugu, batez ere bizi dugun hilabetean. Klub Deportiboko lagunak egun batean batu eta Argazkilaritza Maiatzean sortu zuten. Ez zen orain dela denbora asko izan, ejem... baina dagoeneko 16 urte betetzen dihardute, aupa! Hilabetearen hasieran Galiziako Etxekoek olagarro eta musikaz bete zuten Urkizu ingurua. Zer esanik ez Santa Kurutz inguruko baserritarak, bere ospakizun xumeari beti zerbait berria bilatzen diotenak. Laster Euskal Jaia izango dugu, eta horrek badu guzti horiekin zerbait amankomunean. Den-denek jendearen lana behar dute; ez dakit ekintzaileak izango diren, baina bai eragile eta egile. Udalaren babesa izaten dute gehienetan, bai, baina etxe handitik beti onartzen duten moduan, gauza guzti horiek ez lirakeke egingo atzean lan egiteko jendea prest egongo ez balego. Aurten gauza berria dugu: taberna bateko gazte batzuk musika jaialdia antolatzen ausartu dira, eta ez nolana hiko. Ikusteke dago asteburuko kontua izango den edo datorren urtean Unben bigarren Ezdokfest ospatuko den. Baina argi dago eragileak behar ditugula esparru guztietan, Unberaino joateko bada ere!

Irabazik eraikin industrialak automobilak aparkatzeko erabiltzia proposatu dau

Udaleko gobernu taldiak Aldatzen 58 automobilendako aparkalekua egin nahi dabela eta, Irabazi koaliziñoko ordezkariak proiektuari buelta batzuk emoteko eskatu detse eta horren ordez garatzeko proiektua proposatu dau: erabilli barik daguazten industria-eraikiñak birmoldatzia eta hor-txe aparkatzeko tokiak egittia.

Maria Jesus Agirre Irabaziko ordezkariaren berbetan, euren proposamena *"merkiagua izatiaz gain inguruari gitxago eragingo zetsan. Guk proposatzen dogun proiektua erraz egitteko modukua dala pentsatzen dogu eta, gaiñera, Ardantz inguruan bizi diranak aisialdirako berdeguniaz gozatzen segitze-ko aukeria izango leukie"*.

Ardantz dagan berdeguniari eutsi nahi detse Irabaziko ordezkariak



umek hartuko dabe parte udalak antolatzen dittuan udaleku irekietan: 567 hurrek Oporrak Afariketean programan emon dabe izena eta 94 hurrek, barriz, Udan Jolasean izenekuan. Ekaiñaren 12xan izango da billera informatibua, udaletxeko pleno aretuan, 18:30xetan euskeraz eta 19:00etan gazteleraz.



Berbalagunak Mutrikura juan ziran bisitan

Aurreko zapatuan Berbetan eta Ongi Etorri Berbetan egitasmuetakoki kidiak Mutrikura txangua egin eben. Hasierako plana, bazkaldu eta gero Zazpi Hondartzak itsasontzitik ikustia zan, baiña eguraldi eskasa egitten ebala eta, plan hori bertan behera laga bihar izan eben. Halanda be, ez eben aspertzeko astirik izan. Bapo bazkaldu eta gero Nautilus museora juan ziran eta, bisita amaittu ondoren, Mutrikuko kaltetan gora eta behera ibilli ziran, giro paregabian. Oso gustora eta eguraldixari erreparatu barik, umore onian pasau eben eguna berbalagunak.



Barixakuan agurtuko dabe ikasturtia Esperientzia Eskolakuak

Debabarreneko Esperientzia Eskolakokuak ikasturtiari agur esango detse datorren astian. Maiatzaren 25ian, barixakuan izango da 14. promozioño ikaslien kurtso amaierako ekitaldixa, 11:30xetan Armerixa Eskolan. Beste urte batzuetan egindakuari jarraituta, oinguan be ikaslerei diploma banatuko detse eta, horrekin batera, ikasturte honetan landu dittuen proiektuak azalduko detsez ekitaldira juandakueri. Aurretik, baiña, ikasturtiari agur esateko Gasteizera exkursiñua antolatu dabe ikasliak, martitzenerako.

Ekaiñerako ikastaro barrixak KZgunian


Eibarko Kzguniak hainbat ikastaro pre-
parau dittue ekaiñerako. Planifikauta duguaz ikastaruen artian honek dagoz, bestiak beste: "Oinarrizko Internet" (ezagutu zer dan PC bat, ikasi sarean nabigatzen eta posta elektronikua erabiltzen...), "Smartphonak eta tabletak" (ikasi zelan erabilli Android sistema eragilliarekin lan egitten daben tablet edo smartphone bat), "Facebook" (sarearen bidez ezagutzen dozun jendiarekin kontaktuan ipiñi edo dokumentuak partekatzeko) eta "Google

Aplikazioak" (gure denporia eta informaziñua hobeto kudeatzen ikasteko). Arduradunak gogorarazi dabenez, "batenbategen planifikautako ikastaroren batiñ interesatzen badakia, baiña ezin badakia parte hartu, arazorik ez dago, izena emon leike eta interesatzen den ordu teginan eskindu ahal danian abisatuko detsagu". Bestalde, norberak bere etxeko ordenagailluan egitteko moduko ikastaruak be badaguazela gogoratu nahi detse jendiari. Kurtso guztiak doan dira.

autuan

DJ ARIMA COOL IPURUAN

Udalak martxan ipiñi daben Musika Auzoz Auzo programaren barruan, gaur arratsaldian Ipuruia girotzeko saiua eskinduko dabe. Plentziako DJ Arima Cool-ek izango dau gaur jendia dantzan ipintzeko arduria, 18:30xetatik aurrera Jazinto Olabeiko parkian.



BIKTIMA BI GOGORATZEKO ESKAERIA

ETA-k gure herrixan hil zittuan lagun bi gogoratzeko maiatzian ekimeneñ bat egittia eskatu detsa Eibarko PP-ko ordezkariak alkatiari: oin dala 36 urte, maiatzaren 14an hil eben Antonio Huegun taxista eta oin dala 30 urte maiatzaren 25ian hil eben Sebastian Aizpiri enpresariñua dira biktimak.

Funeraria-Ehorztetxe Mugica

EIBAR **ELGOIBAR**

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27

Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

**AUTOKARABANEN
SALMENTA ETA ALOKAIURUA**

- Autokarabanen, karabanen eta furgoneten salmenta, alokairua eta konponketa
- Denbora luzerako parking-a, garbiketeta-gunea eta ur-kargalanak
- Ibilgailu mota guztiendako tailer-zerbitzua
- Karabanin eta kanpin osagai-denda
- Homologazioak, kanperizazioak...
- 4.000 m²-tik gorako instalazioak

INER CARAVAN

Itxaspe Auzoa, 3 - ITZIAR
943 05 08 03 - 664 68 58 97
www.inercaravan.es



3 IDURRE IRIONDO

Bidezko Merkataritzaren aldeko Ikastetxea ziurtagirixa jasoko dau La Sallek

La Salle Ikastetxiak 'Bidezko Merkataritzaren aldeko Ikastetxea' ziurtagirixa jasoko dau gaur arratsaldian, 17:00-etan La Salle Isasin egingo daben ekitaldixan. Atzo horren bari emoteko egindako prentsaurrekuan azaldu ebenez, ikastetxiak hainbat baldintza bete bihar izan dittu ziurtagirixa eskuratzeko: eskolan Bidezko Merkataritzaren inguruko lantalde bat izatia, Bidezko Merkataritzaren aldeko politika bat idatziz jasota eukitzia eta erabiltzia, ikastetxian Bidezko Merkataritzako produktuak eukitzia eta Bidezko Merkataritzari buruzko

sensibilizaziñua lantzia, bestiak beste. Urte birik behin barriztatu bihar dan ziurtagirixa da eta gizarte zein ingurumen erantzukizuna kontsumo ohituretan txertatzeko konpromisua hartu dau La Sallek.

Eibarko Udalak arlo horrer lotuta daguazen sensibilizaziño jarduerak lantzeko emoten dittuan diru-laguntzen baitan kokatzen da La Salleren proiektu hau. La Salleko Anaiekin loturia dakan Proyde-Proega GKE-ak hainbat proiektu garatu dittu eta azken bi urtiotan sensibilizaziñua sustatzeko jarduerak egin dittue eskolan. Ekin-



Atzo emon eben prentsaurrekuan aurreratutako ziurtagirixa jasotzeko ekitaldixa egingo dabela La Salle eskolauak.

tza horren emaitza da, adibidez, ikastetxian ibillitako ikasliak sortu daben Jende Xumea alkartia. Ziurtagirixa banatzeko gaurko ekitaldixan ikastetxiak kontsumo arduratsuari buruz landu daben euskerazko bi-

deua aurkeztuko dabe. Bestalde, hillebete hau amaittu baiño lehen Bidezko Merkataritzako produktuak erosteko webgunia ipiñiko dabe martxan (www.bidezkomerkataritza.proyde-proega.org).

Errebal Plazia, J.A. Mogel eta Azitaingo La Salleko ikaslien izen eta irudi-proposamena nagusitu da Errebalgo eraikiñerako

Errebalen eraikiko daben eraikiñaren izena eta irudixa aukeratzeko ikasliak aurkeztutako proposamenen artian "Errebal Plazia", Juan Antonio Mogekeko ikasliak proposatutako izena nagusitu da. Irudixa, barriz, Azitaingo La Salleko ikasliena da. Aurreko barixaku goizian zenbatu zittuen herritarrak Pegoran emondako botuak, udaletxeko pleno aretuan. Guztira, 101 boto emon dittue eibartarrak. Irabazi daben proposamenak, Errebal Plaziak, 63 bozka jaso ditu; Errebalgunek, 24; Ametsen Plazak, 8; Eibar Kultura eta Merkatuak, 3; Ibarbe-



Ikastetxietako ordezkariak eta alkartia proposamen irabazliarekin.

kuak, 2; eta Errebal Berriak boto bakarra jaso du.

Errebalen sortuko dan erabillera anitzeko gunarendako izena eta irudi korporatibua aukeratzeko ikaslien arteko lehiaketia antolatu eban Udalak: Lehen Hezkuntzako ikasliak izenak proposatzeko biharrian ibilli dira eta irudixarendako proposamenak, barriz, batxillegoko ikasliak egin dittue. Sei proposamen izan dira guztira eta apirilaren azken egunetan udaletxeko patixuan ipiñi zittuen ikusgai, jende guztiak ikusi eta botua emoteko.

Txontako etxiak zaharbarritzeko diru-laguntzak eskuratzeko baldintzak prest dagoz

Hillebetiak biharrian emon eta gero, Udalak amaittu ditu Eusko Jaurlaritzako Ingu-rumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza sailak Txontako bizilaguneri oin dala hillebete batzuk emondako 2'3 milioi euroko diru-laguntza arautzeko oiñarrixak. Iñaki Arriola alkate-ohia buru dakan departamentutik ailegauko diran laguntzak auzoko etxebizitzak goititik behera eta modu eraginkorrian zaharberritzera bideratuta dagoz. Astelehenian emon zetsen oiñarrixetan jasotakuaren barri modu ofizia-

lian Txontako Mahaixari. Txontako 17 pegora eta 221 etxebizitza izango dira laguntzen onuradun eta, horri esker, bestiak beste, igogailuak ipintzia, arrapalak egittia, fatxada, teillatu eta beste elementu batzuk daken estaldura eta etxien kalifikaziño energetikua hobetzia aurreikusitta dake. Gaiñera, energixa gitxiago gatzatza ahalbide-tuko daben borondatezko beste jarduera batzuk egitten ditueneri diruz lagunduko detsela aurreratu dabe. 2019ko abenduaren 30era arte eskaeria egitten daben



17 pegora eta 221 etxebizitza izango dira dirulaguntzen onuradun.

komunidadeiak izango dabe diru-laguntzak jasotzeko aukeria. Edozelan be, Udalak diru-la-

guntza horren inguruko informaziñua emoteko bulegua balduko dau Txontan laster.

Integraziñuaren aldeko jaixa egin eben Arrateko Andra Marikuak



Zapatuan famelixen arteko jaixa ospatu eben Urkin, Arrateko Andra Mari ikastetxian. Integraziñuaren eta bizikidetzaren aldeko ospakizuna izan zan eta bertan parte hartu eben haur zein helduendako egun zoragarrixa izan zala azaldu deskue han egon ziranak. Antolatu zittuen jarduerak 11:00ak aldera hasi ziran ikastetxian eta batzuk goizetik hasi ziran bazkarixa preparamen: kous kousa, paellia eta Senegalen tipikua dan "nem" izenekua. Musikarekin girotuta egon zan eskolako jolastokixa eta umiendako jolasak eta henna eta aurpegixa margotzeko taillarrak be egin zittuen. Parte hartzera animau ziranak alkarrekin bazkaldu eben goizian zihar preparautako janarixa. Argazkixan ikusi leikian moduan, talde politta alkartzia lortu eben eta hurrengo urtian ekitaldixa errepikatzeko desiatzen agurtu ziran.

Martxan dago Toribio Etxebarria Sarixen 28. ediziñua

Batez be barrikuntza teknologikuagaittik nabarmentzen diran ekimen sortzaillak saritzen dituen Toribio Etxebarria Sarixak aurkeztu zittuen martitzenian Miguel de los Toyos alkatiak eta Marisa Arriola BIC Gipuzkoako gerentiak. Irabazliak 10.500 euroko sarixa jasoko dabe dirutan eta, horrekin batera, laguntza, aholkularitza eta prestakuntzako programetarako sarbidia be izango dabe. Sarixen 28. ediziñuan, gaiñera, 'Enpresa asmuak' eta

'Enpresa barrixa' kategorixetan Eibarkuak diran proiektu irabazle edo finalistendako 5.250 euroko bi sari berezi eskinduko dira, Eibarko EAJ-PNVren zuzenketa baten eragiñez. Srixetarako hautagaitzak aurkezteko epia ekaiñaren 11n amaittuko da eta sari-banaketa ekitaldixa, barriz, uztailaren 18xan egingo dabe, Tekniker Fundaziñuaren egoitzan. Sarixen inguruko informaziño guztia www.toribioechevarria.com helbidian dago eskuragarri.



Marisa Arriola, eta De los Toyos iazko edizioko irabazlearekin.



“Ni ere tantan” goiburu hartuta abiatuko da aurtengo Tantanez Tantan ekitaldia Urkusuko iturritik. Aurrekoetan baino ordubete lehena, eguerdiko **12:00etan** ekingo dio ibilbideari euskeraren gantxilak. Mireia Alonsok (Belarriprest) eta Leire Alberdik (Ahobizi) izango dute iturrian gantxila urez betetzeko ardura, eta hortik aurrera eskuz esku gantxila elkarri emanez, euskeraren aldeko olatua Untzagaraino iritsiko da.

Edonork har dezake parte

Urkizu eta Untzaga arteko ibilbide osoa lotzeko antolatzaileek 500 bat lagun behar direla kalkulatu dute, eta parte hartzeko deia eibartar guztiei egiten diete: *“Gonbidapenik jaso ez dutenek ere har dezakete parte, **ekitaldi irekia** da, **ez da inon izenik eman behar**, ibilbideko tarte bat aukeratu eta bertara joan, besterik ez. Hori bai, ahal dela, **erropa urdinez** jantzita eta lepoan **koadrodun zapiarekin**”*.



Tantanez Tantan

Gant
Urkusuk
13:00e

Gantxila 12:00etan irtengo da Urkusuko iturritik baina antolatzaileek 11:30erako ibilbidean egotea gomendatzen dute, "ibilbide osoa ondo antolatzeko nahiago dugu sasoiz ibiltzea. Goizean goizetik ez da girorik faltako herrian, izan ere, aurten, Eibarko Batukada Feministak bat egin du ekimenarekin eta kalean gora eta behera ibiliko dira girtzen". Horrez gainera, Marisol Arrillagaren soinu-joleak eta Mogel Isasiko hankapaloak gantxilari laguntzen joango dira kalejiran.

Amaiera biribila

Eguerdiko 13:00a aldera aurreikusten da iritsiko dela gantxila Untzagara (harmailen aldera), eta taldeko argazkia atera ondoren erromerian jardungo dugu Mugi Panderoa taldearekin eskutik. Eta gantxilari agur esan eta gero, azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean herrian egingo den Euskaraldia ekimena aurkeztuko digute Belarriprest, Ahozbi eta Bihotzgoxok.



Gantxila 12:00etan
Urkusuko iturritik irten,
kalean Untzagara
ailegatu

Gantxilarekin
batera kalejiran
Untzagaraino

Untzagan
erromeria eta
Euskaraldiaren
aurkezpena

Ekitaldi irekia,
edonork har dezake
parte, izena eman
beharrik gabe

Erropa urdinez
jantzita eta koadrodun
zapiarekin

Euskeraren olatu bihar ailegatuko da



Ohiko dirulaguntza deialdiez aparte, *Meta!* deialdia bultzatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Aurtengoa hirugarren edizioa da eta, dirulaguntza publikoen osagarri, edozein herritar zein erakundek internet bitartez aukera dauka kultur arloko egitasmoak diruz laguntzeko. Goteo.org plataformaren bidez, herritarrek jartzen duten euro bakoitzeko Foru Aldundiak beste euro bat jartzen du. Maria Jose Telleria eibartarra Gipuzkoako Foru Aldudiko zuzendaria da eta berarekin elkartu gara ekimen honen nondik norakoak ezagutzeko eta, bidez batez, eibartar sortzaile eta eragileentzako ere aukera hau zabalik dagoela azaltzeko. Aurten kultura arloko 15 proiektu babestuko dira. Beraz, proiektu bat, ideia bat buruan badaukazue eta aurrera ateratzeko dirua behar baduzue, hemen daukazue aukera.

Maria Jose Telleria (Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaria)



“Sortzaileek dirulaguntzak lortzeko beste modu bat da META!”

- *Gipuzkoarra bazara eta kultur arloko proiektu bat aurrera ateratzeko dirua behar baduzu Crowdfunding edo mikromezenazgoaren bitartez egin dezakezu, Foru Aldundiraren babesarekin. Nola sortu zen ideia?*

Lehen deialdia orain dela 3 urte egin genuen, Goteo Fundazioarekin batera, eta urte hauetan proiektu asko gauzatu dira. Dirulaguntza sistema beste modu batean moldatu nahi genuen eta lerro desberdinak antolatu genituen, diru kopurua ere handituz. *Meta!*-ri balioa ematen diona da kasu honetan azkenean herritarrek babesten ditzutela proiektuak, eta, beraz, Aldundiak babes edo laguntza ematen du herritarrek proiektu horrek babes behar duela demostratzen dutenean. Horrelako helize bat da, alde batetik promotorea edo ekoizlea dago, bestetik herritarrak, eta azkenik erakundea. Komunitate moduko bat sortzen da, batez ere dirua jartzen duen jendearen eta proiektuen sustatzaileen artean. Beti egongo da hor Aldundiaren guardasola, baina batez ere proiektua egin nahi dutenen eta proiektua babestu nahi duten herritarren artean sortzen da hartueman. Aldun-

diak dirua jartzen du, hau horrela da, baina bere lana batipat harreman hori sortu eta bidea prestatzea da..

- *Ohiko dirulaguntza sistemarekin alderatuta, beraz, desberdintasunak baditu Metal-k. Nola funtzionatzen du?*

Crowdfunding-aren bitartez egindako ekarpenak modu progresiboan babesten ditu Aldundiak. Eta horrela, herritarrek ipintzen duten euro bakoitza biderkatu egiten da Aldundiak jarritakoari esker. Horri *matchfundinga* deitzen diogu. 4.700 euro jaso ditza ke proiektu bakoitzak diru publikotik, eta beste pizgarri extra batzuk ere egon daitezke. Ohiko dirulaguntzekin alderatuta, *Meta!*-rekin hasieratik batzen duzu dirua eta berme horrekin aurrera egiten duzu. Kanpaina martxan jartzen da, dirua lortzen da eta, behin dirua batuta, epe bat daukazu proiektua gauzatzeko. Ohiko dirulaguntzak eskatzea baino askoz ere praktikoa da, eta hemen ikasten dena hurrengorako erabili dezakezu, nahi izanez gero interneteko beste edozein plataformatan kanpainak egiteko. Beste eskema bat da eta, herritarren konpromisoari esker, proiektu berritzaile eta sortzaileen garapen autonomia sustatzen da.

- *Zeinek hartu dezake parte?*

Edozeinentzako dago zabalik, baldintza bakarra gipuzkoarra izatea edo Gipuzkoan gauzatuko den proiektua izatea da. Kultura-izaerako edozein proiektu aurkez daiteke, kultura zentzu zabalean hartuta. Aurreko urtean, esterako, eibartar batek bizikleta konpartitzeko ekimen bat proposatu zuen, eta beste batek edozein lekutan hardware irekia sortzeko fabrika. Bestetik, Gipuzkoako Historialarien Elkarteko 8 ki-deen arden Gipuzkoako historiaren sintesia egin zuten, eta hauek ere segiduan lortu zuten behar zuten dirua, Beste adibide bat “L.S.B. Ana - ¡EL LESBICÓMIC!” izan zen. Gainera, beti gordetzen da leku bat garapen bidean dauden herrialdeei laguntza ematera bideratuta dauden proiektuentzako. Batzuk Senegalera dirua bidaltzeko kontzertua antolatu zuten, adibidez. Diru ekarpenen truke nolabaiteko konpentsazioak ematen zaizkie herritarrei, proiektuaren izaeraren arabera (liburua oparitzen zaie, kontzerturako sarrerak, komikia). Eta abantaila fiskal handiak ditu ekimenak, % 50 bueltatzen zaie herritarrei errenta aitortuenean.

- Noiz arte dago epea proiektuak aurkezteko?

Ekanean, San Juanak inguruan onartuko dira 15 proiektu horiek. Irailean hasiko da dirua biltzeko kapaina, eta tarte horretan formazioa eta aholkularitza eskaintzen zaie parte-hartzaileei. Proiektuak ezagutzera emateko eta gizarteratzeko lan handia egin behar dute sortzaileek eta horretarako laguntza izaten dute: nola prestatu bideo bat, zer ordainsari eskaini dirua ematea erabaki duten herritarrei, zelan erabili sare sozialak, zelan aurkeztu zure burua, ze ate jo... Diruaz aparte sortzaileek asko baloratzen dute izandako esperientzia. Guztia taldean egiten da eta hau ere oso inportantea da eurentzako; sortzaileak askotan bakarka ibiltzen dira eta ekimen honekin talde-lana bultzatzen da. Euren artean horrelako sare bat edo engantxe bat sortzen da: *"nire kampaia nire sare sozialetan bultzatzen badut, nire jarraitzaileek beste talde-kideen proiektuak ere ikusiko dituzte"*. Proiektu guztiek elkarrekin egin behar dute aurrera eta hor nolabaiteko konpromisoa sortzen da. Bestalde, hedabideetan oihartzun handia lortzen dute, eta hau ezinbestekoa da. Esate baterako, euskal jantziak, kaikuak eta horrelako jantziak egiten dituen "Amarenak" proiektua martxan jarri zuen neskak ez zuen diru askorik behar bere proiektua martxan jartzeko, baina komunikabideetan lortu duen oihartzuna izugarria izan da, jende-ari gustatu egin zaio eta arrakasta handia lortu du.



Denis Itxaso Gipuzkoako Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kiroletako Foru Diputatua bere lan-taldearekin Eibarren egin zuen bisitan. Erdian, Maria Jose Telleria Kultura zuzendaria, Patxi Lejardi, Jose Luis Gonzalez "Poxpolo" eta Miguel de los Toyos aldamean dituela.

- Urte mordoia Eibarko Udalean lanean egon eta gero zelan joan zaizkizu gauzak Foru Aldundia?

Oso ondo, nahiz eta oso desberdina izan. Urtebete falta da legealdia amaitzeko eta programa ia beteta daukagu. Nahiz eta orain Diputazioan egon, beti daukat burua Eibarren, eta hemengo gauzeekin akordatzen naiz. Aldundiak lan handiena agian hiriburuan egiten du, eta nire begirada –eta aurretik udaletan lanean ibili diren beste lankideena ere– bai izan da herrietara zabaltzekoa. 16 urte egin nituen zinegotzi moduan. Beti esan dut zinegotzi izatea moja izatea bezalako delako, betirako zaudela hor. Agian

urrun dagoelako edo, Eibar ez da izan lehentasuna eta Gipuzkoak Eibarrekin zorra daukala uste dut. Konpentsazio hori legealdi honetan igarriko dela uste dut, bidegorriarekin adibidez.

- Nola ikusten duzu gure herria kultur arloan?

Klub Deportiboaren Argazkilaritza Maiztean, Ezpalak dantza jaialdia, Antzerki jardunaldia.... Badira hainbat ekimen elkarteek bideratu eta sustatutakoak eta bere presentzia eta garrantzia daukatenak Gipuzkoako mailan. Eibarrek daukan kapazitatea kristona da. Eibarko talde eragileak ez daude erakundearen diruaren zain gauzak egiteko, eta gauza asko egiten dira.

Ibilaldia
SANTURTZIN



tamP!
 ibilaldia 18 Santurtzi
 maiatzak 27

maiazaren 27an

IRTEERA
 09:00etan
 Ego-Gainetik

AUTOBUS ZERBITZUA 9



BUELTA
 19:00etan

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte ...eta kitto! Euskara Elkarte



centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
 ☎ 943 12 02 00 Faxa 943 12 02 04

- | | |
|--------------------------|-------------------------------|
| 1) Kardiologia | 10) Barne Medikuntza |
| 2) Zirugia | 11) Radiologia |
| 3) Dermatologia | 12) Urologia |
| 4) Dietetika / Nutrizioa | 13) Traumatologia |
| 5) Anali Klinikoak | 14) Koloproktologia |
| 6) Ortodontzia | 15) Erizaintza |
| 7) Otorrinolaringologia | 16) Foto-depilazio Unitatea |
| 8) Pediatria | 17) Ginekologia BERRIA |
| 9) Psikiatria | 18) Psikologia BERRIA |

Eibarren historian berebiziko garrantzia izan du industriak. Eibartarron izaera eta nortasuna nolakoa den azaltzen denean ('Eibar marka' izendatu izan dena), gure herrian industria garatzeko izan dugun gogoia, trebezia eta egindako lana goraiatzaren da. Industriaren inguruan hazitako herria da gurea, baina denboraren poderioz industria desagertu egin da herriko ingurunean. Gizakiak abandonatutako tenplu, etxe eta eraikuntzak naturak inguratu eta estaltzen dituen bezala, Eibarko eraikin industrialak erdi ezkutuan geratu dira herriko fisonomian.



Ayra Durex, Barrena kalean.

Herriaren arima industrialak azaleratzen

Eibarrentzat hain garrantzitsua izan den industriaren adibide eta ikur dira eraikin industrialak. Abandonatuta daude asko, martxan beste batzuk eta bitzita berria daukate hainbatek, baina badaude bere historia obra-hondakin artean amaitu duten fabrikak. Eibartarrok atzera begira egiten dugu aurrera. Iragana ezagutzen dugu etorkizuna lantzeko eta ardatz horren bueltan jaio zen 1989. urtean Ego Ibarra. Ikerketa eta lan ugari egin ditu batzordeak urte hauetan eta Eibarko eraikin industrialen ondarea ikertzen dihardu orain, besteak beste. Mikel Aparicio arkitekto eibartarra dabil azterketa egiten eta hainbat emaitza argitaratu ditu urte hauetan.

Aparicioen doktoretza-tesiaren idazketatik abiatu zen ikerketa eta Ego Ibarra batzordearen babesa jaso zuen. Eibarko industria-eraikinen datu-base zehatza sortu, Eibarko industria-ondarea sakon aztertu eta, azkenik,

etorkizunari begira har daitezkeen hirigintza-erabakietarako bideak finkatu nahi ziren azterketa honen bitartez. Zentzu horretan, lan honek Ego Ibarra batzordearen helburuetako batekin bat egiten du: dagoena ondo ikertu eta jorratu, etorkizunean oinarri sendoak izateko.

Ikerketa mardula izanik, hainbat fasetan banatu da azterketa: industria-eraikinei buruzko datuak batu; herriko industria-ondarearen eraikin esanguratsuenak identifikatu; eraikin horiek sailkatu; industria-eraiki-

nak oinarritzat hartuta Eibarko hiri-bilakabidea ikertu; argazki-artxiobako arakatu; Udal Artxiboko datuak eta Hirigintza sailekoak jaso; arkitektoen artxibo pertsonalak aztertu; eraikinak bisitatu eta aztertu. Azkenik, tailerretan beharra egin duen jendea elkarriketatu horri guztiari ekiteko; eta katastroa eta Jabetza Erregistroa, ortofotoak eta abar kontsultatu eta aztertu ditu Aparicioek. Gero, datuak batuta, tailerrak planoan kokatu ditu Eibarren zenbat leku hartzen duten eta non dauden ikusteko.



Fabriken fitzak osatzen

Fabrikak eraiki zituzten arkitektoen artxibo pertsonalak arakatu eta hainbat eraikin bisitatzeko aukera izan du Apariciok eta, hortik abiatuta, Eibarrek duen tailar-hiri izaera bistaratu eta balioetsi nahi du proiektu honekin. Fabriken erabilera ezberdinen nahasteak, orografia zailean eraikitako formak, lur premiak eta arkitektoen askatasunak bilakatu du Eibar ikerketa gune. Gaspar Arizaga (Estazino kalean), Pampo-Ojmar (Aranen), Boj (Matxarian), Laspiur-Sarasketa (Bidebarrietan), eta Gabilondo y Pablo Soroa (Matxarian) fabriken azterketak egin zituen lehenik Apariciok. Euren inguruko ikerketaren berri eman zion Ego Ibarra batzordeari 2016ko abenduan eta Ceramica Eibarresa (Otaolan), Ayra Durex (Barrenan), Cadenas Iris (Iparagirren), Barrena kaleko 32an dagoen industria- eta bizitegi-eraikina, Aurrera (Bidebarrietan) eta Olave, Solozabal y Cia - El Casco - lantegiei buruzko informazioa aurkeztu berri du apirilaren 23an.

Fitxa hauen bitartez agerian geratzen da herriak duen orografiak fabrika hauen eraikuntzan izan duen eragina. Mendiek, errekek eta espazio faltak arkitektoen buru-argitasuna martxan jarri zuen eta, eraikitze-ko orduan izan zuten askatasunari lotuta, industria-gune bereziak sortu ziren Eibarren etxebizitzekin elkarbizitzan.




El Casco, Blas Etxebarria kalean.

Tailerren datuak eta 'Beharginen memoria'

Lantegi bakoitzaren fitxa osatzeko eraikin eta enpresa bakoitzaren arlo garrantzitsuenak batzen dituen sinopsia, euren kopena, hiriko artxiboan agertzen den informazioa, hiru dimentsioko ilustrazioekin egindako analisi arkitektonikoak, argazkiak, historia eta ekoizpen-prozesuak jaso ditu Apariciok.

Ikerketarako aplikazio informatikoa egitea da asmoa, idatzizko memoriarekin batera oinarritzko arloak argitzeko. Formatu dibulgatzailean aurkeztuko da Eibarren ondare arkitektoniko bereziari balioa emateko, bere tratamenduak etorkizunera begira hainbat gako eman ditzakeelako.

Mikel Aparicioren lana, ordea, ez da herriko industria ondarearen inguruan Ego Ibarra landuko duen lerro bakarra. 'Beharginen memoria' proiektua jarri zuen martxan batzordeak iaz, gure herriko tailarretan beharrean jardun dutenen



Laspiur, Bidebarrieta kalean.

eta tailarren jabeen testigantzak jasotzeko. Manuel Estanislao eta Enrique Sagalá (Trust), Julian Azkarraga (Alfa), Inazio Agirrebeña (Laster), Oswaldo Gabilondo (Vicente Gabilondo e hijos), Adela Telleria (Aurrera), Antonio Fernández de Roitegui (Gaspar Arizaga), Maria Jose Irusta, Josefina Prieto, María Garcia, Plácido Carmona, M^a Angeles Cortaberria eta Angela Lorenzo (Boj), Jose Currillo eta Roberto Ibañezen kontuak jaso dituzte orain arte.



Gaspar Arizaga, Estaziño kalean.

Erleak

Pentsatu duzue inoiz erleen desagertzeak ekar litzakeen ondorioetan? Uste duguna baino ondorio larriagoak dira.

Erleak fruta arbola, maha-tsondo eta abarren polinizazioaz arduratzen dira. Landa-reen %80 baino gehiago polinizatzen dute. Erlerik gabe ez legoke sagarrik, laranjarik, gezirik, marrubirik, kalabazarik, almendrarik... Gizakiok jaten ditugun produktu gehienak desagertuko liriateke. Bere garaian Albert Einsteinek esan zuen: erleak desagertuz gero lau urteren buruan giza-

kia ere desagertuko zela. Baina, zergatik hasi dira desagertzen? Alde batetik orain dela urte gutxitik hona, Asiako liztorraren eraginez. Lau liztor nahikoa dira erlauntza bat akabatzeke. Bestalde: klima aldaketa, ekosistemaren ezegonkortzea, telefono uhinak, zenbait plagiziden erabilera... Guztiak gizakiok eragindakoak. Lurrean gu baino milaka urte lehenagotik dagoen espezie honi bere habitat naturala kendu diogu. Argi gertatzen da erleen arazorik handiena gizakia dela.

Beraz, ez dago esan beharrik altxor preziatu hau zaindu beharrean gaudela. Erleek sortzen dituzten produktuen artean: ezta, propoleoa, polena, argizaria eta "jalea real" edo erregin jelea aurki ditzakegu.

Eztia: erlauntza aurkitzen den tokian dagoen landareriaren arabera mota batekoa edo bestekoa izan daiteke. Horregatik, herrialde bakoitzean ezti mota desberdinak aurkitzen ditugu.

Propolioa: antibiotiko naturalizat erabiltzen da. Bakterioen zein oxidatzaileen aurkako propietateak ditu. Gure artean propolioaren erabilera asko hedatu da eztarriko infekzioen aurka, ahoko zauriak sendatzeko, onddoen aurkako tratamendu gisa eta sistema immunologikoa indartzeko.

Polena: gorputza indartzeko aproposa da. Gizakien gorputzak behar dituen oinarriko elementu guztiak neurri ego-



jaione yeregi
TEKNIKARIA DIETETIKA
ETA NUTRIZIOAN

kian dauzka polenak. Proteina eta zuntz iturri aberatsa da.

Argizaria: kandelak egiteko, altzariak igurtzi eta ukendu edo kremak egiteko erabiltzen da.

Jalea reala: indar emale ezin hobea. Adineko jendearentzako batik bat. Organismoaren funtzio guztientzako bioestimulatzailer naturala da. Burmuina bizkortu egiten du eta ahalmen intelektuala eta errendimendu fisikoa handitzen du, lan askoko garaietan batik bat. Defentsa sistema ere sendotzen du.



Alfabetismo emozionala

Nola lagundu seme-alabei kooperatiboak izaten? Guraso, hezitzaile edo terapeuta moduan nola lagundu haurrak emozioen kontuetan alfabetizatzen? Sozialki boterea emozioak esparru itxi batean giltzapetzearekin eta arrastoan sartzearekin erlazionatzen da; emozioak kontrolatzea ahultasunaren kontrako botere sintoma bezala. Harreman kooperatiboetara hurbiltzen lagunduko digun alfabetismo emozionala oinarritutako botere pertsonala planteatzen digu C. Steiner-ek.

Talde-lankidetzak onura ugari ditu (C. Steiner-ek bere idatzietan aipatutakoak):

- **Areagotzeak:** Asetze pertsonala eta Talde-asetzearena, eta Norberenganako eta Besteenganako errespetuarena.

- **Garapenak:** Sormenarena,

Ezagutzarena eta Egiakotasun pertsonalarena.

Haurrei taldean erlazionatzen laguntzeko eta kooperazioa bultzatzeko baldintza garrantzitsua "alfabetizazio emozionala" da. Bere oinarriak hauek dira:

A. Sentitzen dudana ezagutztea.

B. Zer pasatzen da ni horrela sentitzeko.

C. Posible baldin bada, momentuan adierazi, **izena jarri:**

- Ez pilatu sentimenduen "kupoiak", esate baterako amorrur sentimenduak, etorkizunean haserre atakeak bilakatu daitezke-eta.

D. **Besteak sentitzen duena identifikatzen ikastea.** Honen galdetzea eskatzen du, eta ez bestearen partez interpretatzea edo hitz egitea.

E. Bi pertsonok **sentitzen duguna nola enkajatu** daitekeen ikustea.

Denbora har dezagun esperimentzia pertsonal bat hartzeko eta pentsatzeko. Aztertu ataskatzen naizen, non gertatzen den hori, horretaz konturatzen naizen, nire tendentzia ekiditea den, emozionatzeak beldurtzen nauen, edo larregi emozionatzeko joera daudadan. Azken finean, nola gestionatzen ditugu gure emozioak.



arrate garitaonandia
PSIKOLOGOA/PSIKOTERAPEUTA

Imagina dezagun hazten ari den haur baten eguneroko bizitzan zenbat prozesu emozional ematen diren, eta **zein nahasiak izan daitezkeen talde harremanak alfabetizazio emozionalik gabe.** Lehen pausua, gure haurrekin euren emozioak entzuteko eta hauen adierazpen produktiboa errazteko espazioak sortzea da. Emozioak aireztatzen hasteko modu ona da entzutea, galdetzea eta euren eguneroko bizipenetan interesa jartzea da.



etxe apainketa



gehigarria

Proiektua bere osotasunean

Jendeak bere pertsonalitatea eta gustoekin bat egingo duen espazioak bilatzen ditu. Hori lortzen da dekorazioarekin, espazioaren distribuzio aldaketekin nahiz erreformekin. Altzarien eta dekorazioaren mundua oso zabala da, eta horretan diharduten profesionalak dekorazio pertsonala izatea nahi dute. Bezeroak ideia jakin batzuekin joaten dira profesionalengana, baina elkarlanean aritu ondoren buruan daukaten hori asko zabaltzen da: tendentzia berriak ezagutzen dituzte, marka bereziak... Beraiei hasieran bururatu ez zaizkien gauzak ere atera daitezke amaieran.

Erreforma integrala deitzen diote proiektua globala edo osoa denean; konpondu beharrekoak konpondu eta bezeroaren gustoko zerbait eraikitzen hasteari edota distribuzioak aldatzeari, funtzionalitateari eta erabilerari begiratuta. Obraren lizentzia, aurretiko lanak, paretak behera botatzea, aroztegi lanak, altzariak, elektrizitatea, berogintza, pintura... Gremio asko bateratzen dituzte. Ondoren, elementu txikiena jartzeaz ere arduratzen dira, proiektua bere osotasunean amaitzeko.

Jendea geroz eta gehiago animatzen da arriskatzera. Marka ausartak daude, eta kolore tradizionaletatik alde egiten hasi da jendea. Gainera, orain dauden teknologia eta baliabide berriekin 360 graduko irudiak erakusten dituzte, eta bezeroak ez du ezer irudikatu behar, dena aplikatuta ikusten du.



Antxustegi

SUKALDE ERAKUSKETA BERRIA. Etorri eta ikusi!



Olaso Industrialdea
Olasope, 5 - ELGOIBAR
943 743 344
www.antxustegi.com



ZERAMIKA
ETA HARRIA



LURZORI
LAMINATUA



MARGOZTUTAKO
PAPERA



BAINUGELA



BURDINDEGIA



ERAIKUNTZARAKO
MATERIALAK

VENTANAS ONA[®] LEIHOAK

Bidebarrieta, 28 - behe Tel. eta Faxa: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 688 695 415
info@ventanasona.com / www.ventanasona.com



**ARROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA
KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA**



943-105810
info@klauseibar.com
www.klauseibar.com

klause

denda
proiektuak
dekorazioa
erreformak



Estaziño, 3

EPOCA GORO



San Juan, 5
EIBAR
943 700216

Joxemiel Barandiaran, 6
DURANGO
94 6472012

www.epocadekorazioa.com

Natura txoko guztietan

Naturak etxeko txoko guztiak hartzen ditu. Betiko landareek eta loreek protagonismoa partekatzen dute edozein apaingarrirekin eta edozein txokori ukitu berde bat eskaintzen diote. Horma-irudi handiek eta biniloek dekorazioa erabat aldatu dezakete.

Sukaldeetan ukitu berdea ohikoa izaten da ere bai eta batez ere usain-belarrak. Ez dute mantenu handirik behar eta loreontzi txikietan koka daitezke, mostradore batean edota leiho baten ondoan. Perrexila, erromeroa, ereintza, oreganoa edo menta erabilienak izaten dira.

Bestalde, posible da komunean naturari tarte bat uztea? Bai, komunean naturari tarte egin diezaiokegu. Biniloek komuneko dutxa itxiturak dekoratu ditzakete.



Rosario, 15
ELGOIBAR
605 71 31 68
943 74 40 19

BARNE-ARKITEKTURA
(PROIEKTUAK / ERREFORMAK)
Interiorismo eta Dekorazio Estudioa

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**



Tf. 943 702 612 Mobila. 625 185 122
lerreformak@gmail.com

- Barne erreformak
- Iturgintza / Gasa
- Igeltseritza
- Gremioen Koordinazioa



Estaziño, 14

**ERAKUSKETA BERRIA
EKAINETIK AURRERA.
ZURE ZAIN GAITUZU!**

cenor

BENICOBA

*ETXEKO TRESNAK
SUKALDEKO ALTZARIAK*

Juan Gisasola, 12-14
Tfnoa. 943 20 39 02
benicobacenor@gmail.com

EKAIN
 APALATEGI AUZOA, 2
Munduko KOLOREA

- ⇒ PINTURA
- ⇒ ZORUAK
- ⇒ PAPER PINTATUAK
- ⇒ ALFONBRAK
- ⇒ IZARAK ETA EDREDOIAK
- ⇒ BURDINDEGIA

Tel. 943 821 325 Faxa. 943 821 326
 ekain@ekain2000.com www.pinturasekain.com

Pintura eta Dekorazioa
GRUPORRALMM, S.L.

GRUPO
RALMM
EKAIN

D
 DESVAN
 San agustin n2 20600 Eibar

desvaneibar@gmail.com
 Tel: 943203762

www.irazabal.net

irazabal
 Jose Maria Irazabal, S.L.
 Azitain Industrialdea, 3 - H 943 120108

KONFIANTZAZko enpresa
KALITATEZko lanak
 bezeroarekiko **ARRETAZ** eginda

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
 eraikuntza, erreformak, igeltseritza

IGELTSERITZA LANAK ETA GREMIOEN KOORDINAKETA

Zure ingurunea (etxea, bulegoa, tailerra...) aldatu nahi baduzu,
GUK LAGUNDUKO DIZUGU... gustorago bizitzen eta etorkizun hobez gozaten.

IRAZABAL-EKIN ELKARLANEAN JARDUNEZ GERO, HARRO ESAN AHAL IZANGO DUZU:

“Hau da nik nahi nuena”

nidi by nuvan

Etxeko txikientzat



Umeen altzari
denda berria Eibarren

www.nuvan.es

C/ Egogain 1, Bajo, 20600, Eibar
T: 943 03 36 72

San Juan, 16 - ac
943 204 259

www.casamaniaculture.com
info@casamaniaculture.com

CASAMANIA
Erreformatik eta altzariak



Teilatuak Fatxadak Sukaldeak Gremioen koordinazioa etab.

JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

F. Calbetón, 4 - 3. solairua



Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23 Tel. eta Faxa: 943 20 77 34 jorgevega.eibar@gmail.com



Txonta, 30 - 1.a eta behea
Tel. 943 12 13 67
Faxa. 943 12 01 50
www.ulmar.net
info@ulmar.net

ERAKUSKETA:

Urkizu, 26 (EIBAR)
Tel 943 12 74 01

**Eraikuntza metalikoak
Aluminiozko eta PVCko Aroztegia**



1964
ESTUDIO

proiektuak | obrak | interiorismoa | altzariak



www.estudio1964.com / tf. 656756485
jardiñeta kalea, 14 eibar / 1964.virginia@gmail.com



attrezzo

PROIEKTUAK BERRIKUNTZAK DEKORAZIOA

Ego gain, 15 Tel. 943 127 196 attrezodecoracion@gmail.com

Sinpletasuna egongelan

Egongela modernoetan diseinu garbiko altzariak jartzen badira, argi naturalak ere laguntzen du dekorazioa arrakastatsua izaten. Gainera, ez dira beharrezkoak diren osagarriak baino jartzen. Altzari modularrak dira arrakasta gehien dutenak. Besteak beste, gustu pertsonalen arabera moldatzeko aukera ematen dutelako. Oso praktikoak dira, eta moldaerazak, dekorazioa erraztasun handiz aldatzeko aukera eskaintzen baitute. Oso bogan dago baita ere, garai bateko eta gaur egungo altzariak ezkonduz parekorik gabeko txokoak sortzea. Beira ere dekorazio modernoan asko erabiltzen den materialetako bat da. Bere gardentasunagatik oso moldaeraza da, eta egoki ematen du dekorazio minimalistarekin. Egongelari dotoretasun ukitua ematen dio.



 **IZARRAITZ**
LEIHOAK-ERREFORMAK



Dutxa berria

Leihoak - Pertsianak - Bainuak
Toldoak - Manparak - Ateak
Parketa - Era guztiko erreformak
Peoren konponketa...


Bidebarrieta, 48
Tel. 943 25 60 26
EIBAR (SONIA)
ventanas-izarraitz.eibar@hotmail.com

mikel elorza

proiektuak, erreformak, sukaldeak, altzariak



ff:605773720
bidebarrieta 12, Eibar



neure
dekorazioa

t. etxebarria, 21
tel. 943 700 818
neuredeco@telefonica.net



M A R S I

bidebarrieta 1. 943201626 - 639403457



eraieder
since 2007

**FATXADA ETA TEILATUEN BIRGAIKUNTZA
BARNE-ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA**

ERAIEDER, S.L.

Tiburzio Anitua, 18 - Tfnoa. 943 200 453 - info@eraieder.es - www.eraieder.es

Egurra bainugeletan

Bainugeletan egurra erabiltzea ez da ohikoena izan orain gutxira arte. Egurra oso material porotsua da, eta oso erraz degradatu daiteke hezetasunarekin edo urarekin. Materialetan aurrerapen handiak eman dira, eta gaur egun posible da egurra bainugeletan ere jartzea. Egur tropikalek, adibidez, tradizionalak baino hobe jasaten dituzte giro lurrinak.

Paretak egurrarekin jantzita bistan gelditzen diren hoditeriak ezkutatu daitezke. Zure bainugelari ondoen dagokion kolorea aukeratu dezakezu, eta egur-panelak edo xaflak jarri.

Joera rustikoa atsegin baduzu, egurra edozein gainazaletan jarri lor dezakezu bila zabiltzan hori. Egurra bainugelako zoruan ere jarri daiteke, espazio ezberdinen arteko segida lortzeko. Hori bai, hezetasunaren aurkako tratamendu egoki bat jartzea eta bainugelari aireztapen egokia izatea gomendagarria da.



proiektuak
ERREFORMAK
dekorazioa
diseinua
VINTAGE
+ lifestyle

www.atelier-11.es * atelier11
Toribio Etxebarria 2A * tlf 688 681 604

F. PASCUAL
ARROZTEGIA - EBANISTERIA
SUKALDE ALTZARIETAN ESPEZIALIZATUAK

Arane, 6
EIBAR
943 20 61 64
943 17 19 73

ARMAIRU ENPOTRATUAK
- Zur mota guztietan
- Zure dekoraziora egokitutako soluzioak

SUKALDE ALTZARIAK
- Fabrikatzaileak gara
- 30 urtetik gorako esperientzia

www.cocinaspascual.com

Zubiaurre, 36 - 38
ERMUA
943 17 68 28

VIRGINIA PASCUAL

Herriko atletak lehen lerroan jarraitzen dute Gipuzkoako txapelketetan

Bai Tolosan jokaturako alebin mailako taldekako probintziako txapelketan bai Donostian jokaturako federatuen mailako lehen jardunaldian, Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak podiumetik podiumera ibili ziren azken asteburuan. Tolosako jardunaldian Iturburu Ikastolako mutilen taldeak txapela jantzi zuen eta nesken taldea seigarren sailkatu zen. Horrez gain, 4x60 metroko erreleboetako proban, Eibarko mutilak nagusitu ziren, neskek hirugarren amaitu zuten bitartean.

Federatuen Gipuzkoako txapelketaren jardunaldia, bestalde, ezin bikainagoa izan zen, nahi den arlotik begiratuta ere: Andoni Calvano (20 urtetik azpikoetan, 200 metro), Iñigo Egidazu (M-45, 200 metro), Julen Teran (3.000 oztopoekin), Garoa Magunazelaia (16tik azpikoetan, pisu eta jabalina jaurtiketak), Mikel Martinez (18tik azpikoetan, jabalina) eta Jone de Castro

Emaitza ezin hobeeekin itzuli zen Eibarko ordezkariak Donostiatik zein Tolosatik.



eta Ekain Egurrola (20tik azpikoetan, jabalina) onenak izan ziren euren probetan. Bigarren postua eskuratu zuten Roberto Gartzia (M-45, 5.000 metro), Elena Susaetak (20tik azpikoetan, pertiga), Nora Za-

balak (16tik azpikoetan, jauzi hirukoitza), Ekain Egurrolak (18tik azpikoetan, jabalina) eta Markel Gutierrezek (20tik azpikoetan, jabalina). Beste hainbestek lortu zuten ohorezko beste postu batzuk ere.



Infantil mailako Urkotronik taldea.

Eibar Eskubaloia harrobiko nesken bi taldek Diputazio Torneo bereganatu dute

Etorkizun oparoa aurrakusten da azken denboraldian Eibar Eskubaloiko ordezkariak erakutsitako mailarekin. Horren adibide dira aurreko asteburuan kadete mailako Aviak eta infantil mailako Urkotronik-ek irabazi zituzten Diputazio Torneoak. Aurreko gain, gizonetako senior mailako bigarren taldeak berriro erakutsi zuen denboraldiko une gozoenean dagoela eta, Escolapioseko bizkaitarrek gerra eman bazioten ere, azkenean 34-28 nagusitu ziren eibartarrak. Taldearen joko onarekin batera, nabarmentzen hasita, Ander Fernandezek lana azpimarratuko dugu, betiko moduan Txirbel atezainaren geldiketekin batera.

2008an jaiotakoentzako saioa

Etzi goizean, bestalde, 09:30ean hasita, eskubaloi-saioa egingo dute lpurua kiroldegian. 2008an jaiotako neska-mutilentzat antolatuta dute saio hori, denboraldi berriari begira harrobi-lanarekin jarraitzeko asmoz.

Unai Loiola eta Gorka Etxanizen artekoa Gipuzkoako hiru-txirloan

San Miguelekoak sendotasuna erakutsi zuen aurreko zapatuan bere bolatokian jokaturako jaurtaldian eta bost txirlorerekin nagusitu zen, Bergarako Mikel Almorzarekin berdinduta. Horri esker, orain lider dugu Unai Loiola (33 txirilo), Floreagako Gorka Etxanizen aurretik (32). Aldea ateratzen diote, gainera, hurrengoari: hirugarren dagoen Xabier Loiolak 27 ditu. San Migueleko tiraldian Mikel Urkia izan zen Asola Berriko ordezkari onena, hiru txirlorerekin. Bihar Azpeitiko Garmendipen hartuko du zortzigarren jaurtaldia, ohikoa denez, 17:00etan hasita.



Eibar FT-ko hainbat hamaikakok lehiaketan dihardute oraindik

1. Mailako Eibarrek domekan amaituko du denboraldia Madridgo Wanda Metropolitanon, 18:30etik aurrera Atletico de Madrid aurkari duela. Vitoria filialak Osasuna B-ri 4-0 irabaziz amaitu zuen liga eta mailari eutsi dio. Eibar Urkok Ohorezko Erregional Mailara igo du eta Euskal Ligako kadete mailako taldea Kopatik kanpo geratu da, Leioan galdu ondoren. Eta emakumezkoen taldeek txapelen bila jarraitzen dute: 2. Mailako talde nagusiak Kopako finalerdietarako txartela eskura du eta Lurralde Mailakoak lidergoari eusten dio, Intxaurdiri 6-1 irabazi ondoren.

17 kilometroko Udaberritraila jokatu dute etzi goizean

“Urko desberdin bat eta koba” ezagutzeko aukera izango dute domeka goizean, 08:30ean, Klub Deportibotik irten eta handik hiru bat ordura bertan Udaberritraila amaituko dutenek. Kalamua Korrikalari Taldeak antolatutako ekitaldian edozeinek eman dezake izena eta, diotenez, “egiteko erraza izango da”. Untzaga plazatik, Ardanzako tren geltoki azpitik Legarre aldera joko dute eta, Amaña kalea hartuz eta bidea jarraituz, Sosola baserriraino helduko dira. Pista lagata, eskuma aldera jo eta, erdi laua den bidezidor batetik, Arrajola baserrira iritsi aurretik, ezkerretara hartuko dute, Urkoruntza abiatuta. Hasieran nahiko laua, jarraian aldapa hasten da.

Bide horretatik 500 metro inguru egin ondoren, ezkerretara joko dute, Amazabalegi Goikua baserrira eta, pistari jarraituz, Amazabalegi-Abeletxera helduko dira. Ate aurretik pasatuta, Urkora doan bidea eskumara lagata, 600 metroko bide lauari jarraituko diote, Urkora doan “Direktissima” rekin topo egin arte: 50 metro gora, aldapa pikoan. Gero aldapa goxotuko da Elorreta Goikua baserri gainera heldu arte.

Zelaian sartu eta, hasiera zabaldua duen bidea hartuta, Urko baserrira iritsiko dira, 15 minututan bide goxo lau batetik “trostan”. Urko baserrian, pistatik beheruntzako bidea hartuta, ezkerretarako bigarren bihurgunean zuzen jarraituko



Urkora doan “Direktissima” aldapa motz baina gogorra.

dute eta, erromara pasatuta, goruntzako bidezidorra jarraituko dute. Berehala zabalduko da bidea, 5-8 minututan Urko kobako gain partera ateratzeko: aldapa malkar batetik 20 metro jaitsi eta pinu baten atzean aurkituko dute koba. Jarraian oinez egin behar den 15 minutuko aldapa hasten da, hasieran zabaldua eta jarraian, pinu artetik, bidezidorra, Mundio azpira heldu arte. Hor eskumara joko dute, Urko aldera eta, 10-15 minututan kreste-

ria jarraituta, gainean izango dira. Eibarrera jaisteko, bide arruntena hartuta eta Elorretako baserriak pasatuta, Lindarizera helduko dira. Bertako zelaian eskumara hartuta, Sallobente gainean dagoen zabor-tegira iritsiko dira eta, handik Eibarko saihebidetara egiteko erabilitako pista zabal batetik, Amañako eskoletara helduko dira ondoren. Behin Amaña jaitzita, Ego-Gain kalea hartu eta berriro Klub Deportibon izango dira parte-hartzaileak.




Delteco Iruñeko triatloian

Eibarko Triatloia Taldeko zortzi ordezkari izan ziren aurreko zapatuan Iruñeko IV. Half Triatloian parte hartzen. Aritza-lekun igerian egin ondoren, Iruñeara igo zuten bizikletan eta hiriburuko kaleetan amaitu zuten antxixketan. Pello Osorok bertan behera laga behar izan zuen proba bigarren zihorean. Bere anaia Txominek 22. postuan amaitu zuen eta emakumezkoetan Saltokiko Aitziber Urkiola seigarren izan zen.

Kadete mailako txirrindulari proba jokatu da domekan Eibarren

Eibarko Txirrindulari Elkartearen bigarren edizioa izango da jokoan etzi, goizeko 10:30ean hasi eta eguerdiko 12:00ak inguruan Urkizun amaituko den kadete mailako lasterketa. Ikolan/Lanaldi Sari Nagusiak 63 kilometro izango ditu eta, hasieran Elgoibarreraino jo ondoren, han buelta eman eta Maltzagara bueltatuko dira, Oñati helburu dutela. Eta Zubillaga poligonotik zuzenean abiatuko dira Eibarreraino, oraingoan Urkizun egongo den helmugaren bila.



Gizonezkoen waterpolo taldeak 5. postua lortu zuen Madrilan

Urbat-Urkotriko waterpolo taldeko ordezkariak 3. Mailako Espainiako txapelketa jokatu zuten aurreko asteburuan Madrilan eta, bi partidu galduta eta beste hainbeste irabazita, bosgarren postuan amaitu zuten, 32 gol sartu eta 34 jaso ondoren. Taldeak sendotasuna erakutsi zuen eta kide guztiak pozik itzuli dira bizi izandako esperientziarekin. Miren Urizar, bestalde, Bartzelonan izan zen Espainiako selekzioarekin teknifikazio jardunaldia egiten; horrelako mailara heltzen den Urbateko bosgarren jokalaria da Urizar.



Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuten igerilari gazteak.

Eibar Igerixan taldekoek maila bikaina erakutsi zuten Gipuzkoako txapelketan

Aurreko domekan Azpeitian jokaturako igeriketako Gipuzkoako Eskola mailako txapelketetan, Eibar Igerixan klubeko lau ordezkari izan ziren parte hartzen eta euren onena eman zuten, gainera. Horrela, Iker Calvok txapela jantzi zuen 2006an jaiotakoan lehiaketan; beste hirurak -Izaro Bernedo, Irene Cabrera eta Iosu Talan- 2007an jaiotakoan arteko lehiaketetan hartu zuten parte, marka bikainak eginez.

Astebeteko egonaldiak uztailean

Eibar Igerixan kirol klubak, bestalde, aurten uztailean astebeteko egonaldiak antolatzea animatu da. Lau txanda osatzeko asmoa dute, txandako gehienez 20 ume hartuta. Ondarruko Arrigorri ostatuan egongo dira eta, informazio gehiagorako, interesatuek eibarigerixan@gmail.com helbidera jo dezakezue (baita 688610620 telefono zenbakira).

Katu Kalek probintziako 2. Mailara igotzeko fasea jokatu du

Herriko saskibaloia aurreko zapatuan lortu zuen azken bihar eta etzi Donostian jokatu den igoera faserako txartela. Denboraldi guztiko erronkarik garrantzitsuenaren aurrean daude, beraz, Iñaki Sanchezek prestatzen dituen mutilak. Bihar Kurkubiren aurka jokatu dute 20:00etan eta, neurketa hori irabaziz gero, domeka eguerdian (12:00etan) finala izango dute jokoan Bentaberriko kiroldegian. Katu Kalek azken fase horretarako txartela eskuratu zuen aurreko zapatuko azken partiduan erraz nagusitu zitzaion Tolosako Take Coach taldeari, batez ere hirugarren laurdenean izandako emaitzari esker: lehen laurdenean 20-9 irabazten zuten eibartarrek, atsedenean 30-24, hirugarren laurdenean amaieran 52-31 eta, azken zatian emaitzari eustearekin kon-



formatu eta gero, 67-49rekin joan ziren aldageletara. Willek lortu zituen puntu gehien (18), baina ondo lagundu zioten Sergiok (10), Pik (9), Andersonek (8) eta Unai (6).

Lau domina Kalamua klubekoentzat jiu-jitsuko Parlako Nazioartekoan

Aurreko zapatuan Madrilgo Parlan jokaturako nazioarteko torneoaren 10. edizioan estatuko 500 kirolaririk gora hartu zuten parte, 70 klub ordezkatzeko, batez ere Madril, Katalunia, Valentzia, Galizia, Errioxa eta Euskadikoak. Lehiaketa Ne Waza, Borroka eta Binakako Katen modalitateetan jokatu zen eta Kalamuako ordezkariak ezinhobeto moldatu ziren. Mikel Marinek urrezko domina irabazi zuen seniorretako Ne Wazan eta Borrokan, Asier Eslava kadeteak zilarrezkoa bereganatu zuen Ne Wazan eta brontzezkoa Borrokan, eta Jon Alberdi infantila bosgarren geratu zen Borrokan. Marinek duen maila erakutsi zuen berriro ere eta beste bien jarduna bikaina izan zen, kontutan izanda euren debuta zela horrelako lehiaketa batean.



Kalamuakoentzako hurrengo erronka jiu-jitsun senior mailako Europako txapelketa izango da. Polonian jokatu da eta bakarrik Josu Huarte izango da bertan, Javi Lassak peronean min hartu eta sendatze prozesuarekin jarraitzen duelako.



Atletico Balearesek mailari eutsi dio Manixekin

Javier Mandiola Eibarko entrenatzaileak beste urrats bat egin du bere ibilbidean eta, Tudelanorekin eta Burgosekin izandako arrakastaren ondoren (nafarrei mailari eusten lagundu ondoren, hurrengo denboraldian taldeak marka egin zuen golik jaso gabe), oraingoan Atletico Baleares ere jaitzieratik libratu du azken jardunaldian, Ebro 5. sailkatuari 3-1 irabazi eta gero.

Gure Esku Dago - Gazteak

“Erronka handia da, baina 1.000 gazte batzea nahi dugu 10ean”

Donostia, Bilbo eta Gasteiz batuko ditu Gure Esku Dago mugimenduaren inguruan ekainaren 10ean egingo den giza-katea. Erabakitze eskubidearen alde eskuak batuko dituzte Euskal Herriko milaka herritarrek eta eibartarrak ere batuko dira egitasmo honetara. Gurean, gainera, gazteek protagonismo berezia izango dute. Izan ere, 71. kilometroa euren izango da, Gazte Kilometroa.

- Nolako ekintzak egingo dira Gure Esku Dagoen giza-katearen inguruan?

Gazteen kilometroa Urkizu aldean egongo da (Azitaingo gasolindegitik Urkizuko parkera), beraz, 11:00etan Urkizun batuko gara. Gero, elektrotzarangaren laguntzarekin giza-katean tokia hartuko dugu eta 12:00etan giza-katea egingo da. Ekintza amaitzerakoan, 12:30ak inguruan, Urkizutik Untzagara joango gara kalejiran elektrotzarangarekin. Untzagan erromeria egongo da Parrapas taldearekin eta herribazkaria egingo da gero. Bazkalostean kontzertuak egongo dira La Basu eta Kobanen eskutik. 2014an egindako giza-katea herririk herri pasatu zen, baina ez hainbeste hiriburuetatik. Aurten, ostera, Donostia, Bilbo eta Gasteiz batuko ditu giza-kateak eta hiriburuetan antolatu dira ekintzak. Beraz, Eibar ekintza horien agendan sartzen saiatu gara. Euren herrietatik giza-

katea pasatzen ez den herrietako lagun batzuk gurera etorriko dira eta jende guzti hori bazkari herrikoira (eta beste ekintzetera) etortzea espero da.

- Non egingo da bazkaria?

Untzagan jarriko den karpan egingo da eta 400-500 lagun batuko gara, beraz, baliteke batzuk kanpoan geratzea.

- Non erosi daitezke bazkarira joateko tiketak?

Atzo jarri genituen salgai tiketak 15 euro (langileentzat) eta 10 eurotan (langabetu eta ikasleentzat). 71. kilometro honetan izena emateko postuak jarriko ditugu eguenetan pintxopotean (maiatzaren 24 eta 31an, eta ekainaren 7an) eta barixakuetan Guridi taberna inguruan (gaur bertan, maiatzaren 25ean, eta ekainaren 1ean eta 8an), eta bertan erosi ahal izango dira bazkarirako tiketak. Gure Esku Dagoen webgunean ere apuntatu daite-



eibarren apuntatzeko ordutegiak

Ostegunetan:	Pintxopotian	19:30-21:00
	Deporren	19:00-20:30
Ostiraletan:	Guridiko eskiñan	19:30-21:00
	Deporren	19:00-20:30
	M18 Amañan	
	M25 Urkizun	
Zapatuetan:	Untzagan	10:00-15:00

eman eskuak etorkizunari

gure esku

ke, baina eurek ematen dizute kilometroa. Eibarko Gure Esku Dago eguenetan Deporren (19:00-20:30), zapatuetan Untzagan (10:00-15:00) eta barixakuetan auzoetan (Ipuru, Amaña eta Urkizun 19:00etatik 20:30era) izena emateko aukera ematen du baita ere, eta 71. kilometroa aukeratzeko beta dago.

- Mila gazte biltzea da helburua. Erronka handia!

Erronka handia da, joan den zapatuko bileran jende dezente batu zen eta herriko gazte kuadriletako jendearekin harremanetan gaude bakoitzak bere lagunak animatzeko. Gainera, sare sozialetan jendea erakartzeko lana egingo dugu orain. Azkenaldian Eibarko gazteria nahiko aktibo dabil eta agerian jarri da Martxoaren 8ko manifestazioan, Kataluniari elkertasuna erakusteko egin diren kontzentrazioetan eta abar. Beraz, horrelako egun batean jende gaztea mugituko dela uste dugu.

- Mila arrazoi daude giza-katean parte hartzeko?

Erabakitze eskubidearen aldeko mugimendua da Gure Esku Dago eta pisu handia duen arrazoi da.



Giza-katean parte hartzeko gogoia erakusti dute gazteek hasieratik.

Jokin Bergarak jantzi du txapela Plazatik Gaztetxera bertso txapelketako finalean

Zapatuan jokatu zen Plazatik Gaztetxera bertso txapelketako finala Ondarruko Gaztetxean eta Jokin Bergara eibartarra izan zen txapelduna. Ondarrutarrek bidali duten kronikaren arabera, *“politxo joan zen Plazatik Gaztetxera txapelketako final eguna. Goizean goizetik hasi ziren Gaztetxean bazkaria prestatzen Oñatiko lagunak. Eguraldi eskasa zegoenez eta kalean inor ez zebilenez bertan behera laga genuen goizean egin behar zen bertso-poteoa. Hala ere, azkenean espero genuena baino jende gehiago etorri zen eta bazkarirako 40 bat lagun elkartu ginen”*.



Saioa 18:00etan hasi zen eta ordu-rako Euskal Herriko txoko guztietatik etorritako jendearekin bete zen Gaztetxea. Epaille lanetan Karlos Ibarburen, Ion Martinez eta Maider Arregi ibili ziren eta idazkari lanetan, berriz, Eli Pagola. Gai jartzailea Alexander Idoeta izan zen. Bertsolariak zozketaren ordenaren arabera igo ziren taulara: Oier Etxeberria (Azpeitia), Manex Asti-

garraga (Deba), Ane Beloki (Legazpi), Jokin Bergara (Eibar), Urko Arregi "Kortxelo" (Oñati) eta Aitor Zubikarai (Itziar). Kronikan jasotakoaren arabera, *“hasiera batean 8ko haundian eta 8ko txikian, ofiziotan binaka, bakoitzak bina puntu erantzun, puntutan binaka gaia emanda eta 10eko txikian ofiziotan ibili ziren. Bertsoaldi ederrak entzuteko aukera izan genuen, gehienak umoretik joan ziren, gaiak ere horrelakoak ziren eta. Buruz burukora orden alfabetikoan Jokin Bergara eta Oier Etxeberria pasatu zi-*

ren. Estu-estu ibili zen gauza. Buruz burukoan gaiak serioagoak izan ziren: biak 6ko motzean, segidillan minuto bat eta erdi egin arte eta bakarka, gaia emanda. Jokin Bergara izan zen txapelduna. Ondarruko Gaztetxeak bakoitzari OGA-ko kamiseta bana oparitu zien eta txapeldunari, kamisetaz gain, pasta kaja eder bat. Iluntzean, 20:00ak jota amaitu zen saioa bertsolarien azken agurrarekin eta emozioz beteta. Azkenean ez zen kontzerturik egin eta, Gaztetxean pixka batean ambientearekin jarraitu eta gero, jende gehiena Berritxura joan zen parrandara”.

Ondarruko Gaztetxeak eskerrak eman nahi dizkiete bazkaria egin zuten oñatiarrei, gaiak prestatzen laguntzen ibili ziren guztiei (Aissa, Eñaut...), Plazatik Gaztetxera antolatzen ibili diren Gaztetxe eta Gazte Asanbladei, epaille, idazkari eta bertsolariei eta bereziki finala entzutera joan ziren guztiei.



Epai-mahaikoak puntuazioak ematen.

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



MALEN JAINAGA: Iraganaren aztarnak.

MIREN NARBAIZA

(MICE):

“Napoka Iriaren jarraipena bezala ulertzen dut MICE”



“Kanpora bizitzera joan eta inoiz baino gehiago joko dut Eibarren”, esan digu umoretsu Miren Narbaizak. Apirilaren 22an ‘...eta kitto!’ Euskara Elkartearen jaialdian Kokein taldeko Zalao Urainekin jo eta gero, maiatzaren 24an Kultun eta ekainaren 24an txosnetan egongo da MICE proiektu pertsonalarekin, eta ekainaren 1ean Joseba B- Lenoirrekin EzDokFesten. Momentu gozoa bizi du musikari eibartarrak eta horren lekuko egingo gaitu herrikideak.

- Birritan edukiko zaitugu Eibarren hila-bete honetan MICEren azalean. Zure jaioterrian jotzen duzunean ardura berezia sentitzen duzu ala etxean inon baino hobeto?

Alde bietatik zerbait sentitzen dut. Batetik, gustora sentitzen naiz, norberaren herrian jotzea polita delako eta inguruko jendeak zuzenean jotzen ikustea gustatzen zaidalako. Gainera, Kultun eskainiko dudana kontzertua arratsaldean izango denez, jende askorentzat eskuragarriagoa izango da gaeuz jotzea baino. Bestetik, inporta zaidan jendea begira izango dut eta bertigo pixka bat ematen dit. Horrelakoe-tan nahiko urduri jartzen naiz, baina berezia izaten da halabeharrez.

- Kultun arratsaldean joko duzu eta San-juanetan txosnetan izango zaitugu. Tes-tuinguruak kontzertuak baldintzatzen du?

Inguruak, jendearen jarrerak, ordutegiak eta tokiak asko baldintzatzen dute. Ezberdina da Kultu barruan jotzea, jende ez askoren aurrean, gertuko giroan; edo txosnetan, toki irekian eta jai-giroan. Dena dela, txosnetako kontzertua ekainaren 24ko arratsaldean izango da eta ez dut uste demaseko jai-giroa egongo denik, baina Kultukoarekin alderatuz testuinguru ezberdi-

na da. Kontzertuak egokitzeak aukera ematen du horrek. Polita da gertatuko dena aurreikustea eta horren arabera kontzertua moldatzea.

- Agenda betea daukazu datozen hilabeteotan. Atzerrian ibiltzeko aukera izango duzu Napoka Iriarekin egin bezala?

Momentuz ez, baina gustatuko litzaidake. Atzerriara irtetea ondo dago norberaren burua kokatzeko.

- Zentzu horretan, zure musika lagun-garria da? Ez dauka mugarik?

Musika komunikazio-bide unibertsal da. Ez da askorik behar musika entzuten bidaia ahal izateko.

- Hilabete batzuk daramatzazu MICE proiektuarekin. Zer moduz joan da orain arteko ibilbidea?

Oso gustora nabil. Kontzertuak eman ahala taldea sendotzen doa, eta gero eta gustorago eta trankilago gaude. Proiektuarekiko interesa dagoela ikusten dugu, kontzertuak egiteko deiak jaso ditugu eta pozik gaude.

- Bakarkako ibilbidea hasi duzu MICE-rekin, baina ondo inguratuta ekin diozu bide berriari.

Kantuak egin ahala Joseba Baleztena batu zen eta bera ibili da diskoa ekoizten.

Bestetik, Ilargi Agirre, Joseba eta hirurok ibili ginen diskoa grabatzen. Gero, Ibai Gogortza Borrokan taldearen eta Joseba Irazokiren gitarra-jolea, eta Fernando Neira Ruper Ordorikarekin aritzen den baxu-jolea batu dira kontzertuetarako. Kultuko kontzertuan, ordea, Josebak eta biok bakarrik joko dugu, kontzertu akustikoa egingo dugulako. Demaseko musikariak dira, beraz, ni oso pozik.

- Ander Mujikak eta zuk agur esan zenuen Napoka Iriari, baina Napoka Iriak agur esan dizue edo beti jarraituko duzue berari lotuta?

Napoka Iria ez da gugandik inoiz joango eta pozik daramagun lotura da. Betiko markatu gaitu Napoka Iriak, bertan hasi ginelako musika munduan Ander eta ni.

- Hainbeste urteren ostean Napoka Iriak izen eta ospe bat zeukan musikaren munduan. Zaila da estatus horri uko egitea eta, nolabait, zerotik hastea?

Ez diogu horri uko egin, beraz, erraza da. Napoka Iriaren jarraipena bezala ulertzen dut MICE eta etorkizunean beste proiekturen bat badator, jarraipena izango da baita ere. Ez dut sentitzen ezerekin apurto dudarik, jarraipena naturala izan da eta aberastu egin nau.



MIRENGU PLAZAOLA
(Sostoako zuzendaria)

- Nola sortu zitzaizun Sostoa Abesbatzako zuzendari izateko aukera?

Zuzendari bila zebilela idatzi zion Sostoa Gipuzkoako Abesbatzen Federazioari eta deialdia jaso genuen federazioan gauden zuzendariok. Batzarkideekin kontaktuan jarri nintzen eta Sostoaren eta nire ordutegiak bat ez zetozela ikusi genuen, baina berba egin genuen eta euren egunak aldatzea erabaki eta gero, nirekin harremanetan jarri ziren.

- Zer moduz lehenengo hilabeteak Sostoako zuzendari lanetan?

Oso ondo. Esperientzia aberasgarria da. Eurentzat erronka da, baina baita niretzat ere. Moldaketa bat egon da taldean, jende asko joan da eta zuzendari aldatuta izan dute. Gainera, taldeak baditu urte batzuk eta orain arte modu batean egin dute lan. Beraz, horren aurrean jarritzea, eta Sostoa bizirik jarraitzen duela eta indarrean dagoela erakutsi nahi izateko erronka handia da niretzat.

“Abeslariarentzako gauza aberasgarriak bilatuko ditugu”

Mirengu Plazaolak urtarrilean hartu zuen Sostoa Abesbatzaren zuzendari kargua eta aro berria bizitzen hasi da taldea. Maiatzaren 11an kontzertu sakroa eskaini zuen San Andres elizan, eta Eibarko Koro Gaztearekin eta Trio Medianocherekin arituko da Sanjuanetan. Gero, Gabonetako kontzertuak itxiko du urteko agenda. Errepertorio berria prestatzen dihardu Sostoa eta etorkizunari begira lanean hasi da.

- Zeintzuk dira zure helburuak epe laburrean?

Nahiz eta taldea sortuta egon, talde-lana finkatzea da helburu nagusietako bat. Kide bakoitza ez da indibiduala, denok elkarrekin bat sortzen dugu, ni neu barne. Abesti egokiak eta alaiak aukeratzea izan da helburuetako bat lehenengo fasean. Errepertorio berria, atsegina eta deigarria sortzeko gai garela ikusarazi nahi izan dut. Taldea gustora sentitzea nahiko nuke eta taldean gaudenok bertan geratzea. Ez ge-nuke ahotsik gabe gelditu nahi!

- Zure ikutua eman nahi diozu abesbatzari?

Bai. Musika ikusi eta bizitzeko modu bat daukat, bakoitzak berea daukan moduan. Gauza sinpleak edo konplexuak egin, abeslariarentzako aberasgarriak diren gauzak egiten ahaleginduko naiz beti. Instrumentista ezberdinekin kolaborazioak egitea, lehiaketatan parte hartzea eta gizonezko gehiago abesbatzara

batzea nahiko nuke, adibidez. Gaudenak egon eta gizon gutxi badago ere, nahia-go dut taldea sendotu eta gauza ezberdinak egiteko gaitasuna izatea, falta zaingunaz kexatzen ibiltzea baino. Daukagunarekin moldatuko gara eta uste dut maiatzaren 11ean zeren gai garen erakutsi genuela.

- Zaila da belaunaldi berriei heltzea? Badago erreleboa?

Lehen mundu guztiak abesten zuen, baina orain geldidune bat dago eta abesteko ohitura galtzen ari da. Eibarko Koro Gaztea daukagu hor eta Sanjuanetan elkarrekin abestuko dugu Trío medianocherekin elkarlanean. Ikusiko dugu poliki-poliki pasabidea eraikitzen den ala ez, Koro Gaztea uzten dutenean gurekin hasteko. Horretarako, gure errepertorioa egokia izan behar da, erakargarria. Orain dela gutxi Koro Gaztean dabilen neska gazte bat hasi da gurekin eta zubi-lana egin dezake berak.

Ipurterre lehiaketako sariak eguaztenean banatu zituzten

Eguazten goizean jaso zuten saria ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen 24. Ipurterre Ipuin eta Gutun Lehiaketako irabazleek, Hezkuntza Esparruko antzokiak hartu zuen ekitaldian. Aurtengo edizioako irabazleak Ixone Bilbao Gonzalez (LH 1-2, Aldatze ikastetxea), Irene Alonso Bravo (LH 3-4, La Salle Isasi ikastetxea), Jone Aldai Lorente (LH 5-6, J.A. Mogel Ikastola), Leire Martin Etxaniz (DBH 1-2, Mogel Isasi BHI) eta Maialen Gonzalez Adam (DBH 3-4, La Salle Azitain) izan dira eta, gelako lagunekin batera, ederto pasatu zuten saria jasotzeko ekitaldian, Tor magoaren trikimailuei esker. Saritutako idazlanak hilabete honetako Txikitto! aldizkarian argitaratuko dira.



Debabarreneko Orfeoia kontzertua eman zuen Ermuan

Aurreko zapatuan kontzertu berezia eman zuten Ermuan DBOR Debabarreneko Orfeoia eta Ermuko Pispillu Abesbatzak, Minbiziaren Aurkako Elkartearen Ermuko taldeak 20 urte bete dituela ospatzeko. Ermuko Santiago Apostoluaren elizan eskainitako kantaldian abesbatza bakoitzak bere aldetik hainbat kantu abestu zituen eta, amaieran, talde biek elkarrekin jardun zuten.





Kantu-afarirako eta herri-bazkarirako txartelak 24ra arte salduko dira Deporren. Lehenbailehen erostea komeni da.

Aurkeztu dute Eibarko 53. Euskal Jaia

Eguaztenean aurkeztu zuten Klub Deportiboko Kultura batzordearen eskutik egingo den Eibarko 53. Euskal Jaia. Aurtengo egitaraua bihar hasiko da, Coliseo antzokian eskainiko den "Martin Zalakain" ikuskizunarekin. Datorren eguenean, berriz, Miren Narbaizaren MICE proiektuaren emanaldia egingo da San Andres elizako klaustroan (euria bada, Kultun) eta, barixakutik aurrera, "Euskal Jaian bete-betea sartuko gara: Kalian Jolasian, elektrotzaranga, Mugi Panderoa taldearen emanaldia... Zapatuan Artisau eta Baserritarren Azokak beteko du goiza eta arratsaldeko trikipoteoari goizaldera arte iraungo duen kantu-afariak jarraituko dio. Eta domekan Ezpalak dantza jaialdia hartuko du Untzagak, oraingo honetan giza-dorreei eskainitako ikuskizunarekin. Herri bazkaria ere egingo da eta arratsaldean berriz ere dantzak izango dira nagusi, Patxi eta Konpainiak gidatutako erromeria eta larrain-dantza saioekin". Antolatzaileek dei egin nahi diete kantu-afarian zein herri-bazkarian parte hartu nahi dutenei, "antolaketa-lanak errazte aldera txartelak lehenbailehen erosteko". Maiatzaren 24ra arte egongo da erosteko aukera, Klub Deportiboan, 17:30etik 21:30era arteko ordutegian.



Ikasleen hiru bertso jaialdi Coliseoan

Lehen Hezkuntzako ikasleek Bertsozale Elkartekoekin ikasturtean zehar ikasitakoa jendearen aurrean erakusteko aukera izango dute, datorren astean Coliseo antzokian egingo dituzten bertso jaialdietan. Astelehenean Amaña, Iturburu eta La Salleko LHko 5. mailako ikasleak igoko dira taulara, martitzenean hiru ikastetxe horietako 6. mailakoak eta eguenean, berriz, Arrateko Andra Mari, San Andres, Urkizu eta Aldatzeko ikasleen txanda izango da. Hiru egunetan 18:00etan hasiko dira saioak.



Bihar aurkeztuko dute Euskaraldia Untzagan

Tantanez Tantan euskeraren aldeko giza katearen ondoren, gantxila Untzagara ailegatu eta jarraian, bihar 13:00etan aurkeztuko dute Untzagan "Euskaraldia, 11 egun euskaraz" ekimena. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean garatuko den Euskaraldia Euskal Herri mailako ekimena da eta "euskaldunek euskara gehiago erabiltzeko urratsak ematea eta herritarren hizkuntza

ohiturak aldatzen laguntzeko" asmoz abiatu dute. Eibarrek ere parte hartuko du 11 eguneko ahalegin horretan eta AKEBAI arduratuko da ekimena aurrera ateratzeaz, "nahi duten talde, elkarte eta herritar guztien laguntza eta partaidetzarekin". Biharko Eibarren Euskaraldiari hasiera emateko ekitaldia izango da eta eibartar guztiak dau- de gonbidatuta.

Igande musikatuak Legarren

Legarre kalean dagoen Tarte kafetegiak domeka eguerdiak musikarekin girotuko ditu, "Igande musikatuak" izeneko egitasmoaren barruan antolatutako saioekin. Domeka honetan Ermuko "Versionarios" taldekoek Espainiako klasikoaren bertsioak eskainiko dituzte, 12:00etatik 14:30era bitartean. Eta maiatzaren 27an, berriz, The Billus Moon bikote akustikoaren txanda izango da.



Argazkilaritzak Untzaga beteko du

Argazkilaritza Maiatzean egitarauaren barruan, bihar arratsaldean, 17:00etatik 21:00etara Untzaga argazkilaritza-estudio bilakatuko dute Deporrek argazkilariek, kalean egingo duten topaketan: arratsalde osoan aire librean erakusketa kolektiboa ikusteko moduan ipiniko dute, nahi duenak estudioko erretratuak doan egiteko aukera izango du, argazki artistikoak saltzeko stand-a zabalduko dute eta kamera minutularia ere egongo da.

Antzerkia autobus barruan

Debabarreneko Eskolarteko XXXIV. Antzerki Jardunaldien barruan eguaztenean antzezlan berezi batekin gozatzeko aukera izango da Untzagan, han ipiniko duten autobusaren barruan: Madrilgo "Clavileño e hijos" eta "Territorio Violeta" taldeen eskutik "El diminuto teatro sobre ruedas" 20 bat minutuko antzezlan ikusteko aukera izango da, aldeztu aurretik hitzordua hartuta. Hamar emanaldi egingo dituzte, goizez eta arratsaldean, honako ordutegiari jarraituta: 09:55, 10:30, 11:05, 11:40, 12:15, 14:30, 15:05, 15:40, 16:15 eta 16:50.





LOREA ARAKISTAIN

Garaiko petroleoa

Cambridge Anlyticaren eskandaluak senatura eraman du Marck Zuckeberg. Senatuak gizona estuago hartu izana espero zitekeen eta eztabaida sakonagorako bide ere ematen zuen egoerak, baina deskafeinatu xamarra izan da agerpena.

Lindsay Graham senatari errepublikarrak jarri zuen fokua:

Senataria: "Gertatutakoa gertatuta, nola esango diet boto-emaileei autorregulazioa ona dela?"

Zuck: "Ez dut uste erregulatu behar ez denik"

Senataria: "Europak arrazoi duela uste duzu?"

Zuck: "Gauzak ondo egiten dituztela uste dut"

Europa aipatzean, maiatzaren 25an indarrean sartuko den Datuak Babesteko Araudi Orokor berriaz ari ziren, datuak eta hauen zirkulazioa babestea asmo duena, gaurdainoko legerik zorrotzena.

Honen aurrean Interneteko zerbitzuak haien politikak egokitzen eta erabiltzaileei baldintza berriak onartzeko eskatzen dihardute.

Aurrerantzean baldintzak garbiago eta xeheago azaldu beharko dituzte, eta berriaz onartu beharko dira. Nor dago prest uko egin eta mainstream diren aplikazioak baztertzeko? Alternatiba badago eta software libredu izena.

Egin kontu gure mugikorrean gertatzen den guztia gordetzen duten horiek ez direla software edo komunikazio enpresak, haien muina datuak dira eta gu produktua. Datu-enpresak dira datuak direlako garaiko petroleoa.

Martin Zalakain ikuskizunarekin saio bikoitza hartuko du bihar Coliseok

Bihar saio bikoitzean (19:00etan eta 22:00etan) Coliseo antzokian eskainiko duten "Martin Zalakain" ikuskizuna aurkeztu zuten eguaztenez Portalean, Patxi Lejardi Kultura batzordeburuak eta ikuskizunaren parte hartzen duten hainbat lagunak, tartean Juan Antonio Urbeltz zuzendaria, Ander Lipus aktorea, Iñaki Arregi dantza zuzendaria, Josu Garate dantza-maisua, Eire Vila Elgoibarko Haritz dantza taldeko ordezkaria eta Miren Hazas eta Oier Araolaza Kezka dantza taldeko kideek.

Azaldukoaren arabera, Pio Barojak idatzitako "Zalacain, el aventurero" eleberrian oinarrituta Juan Antonio Urbeltzek eta Argia taldeak sortu duten lanak dantza, musika eta antzerkia biltzen ditu. Taula gainean Euskal Herri osoko dantzariak egongo dira, 80 bat inguru: Argia (Donostia), Duguna (Iruñea), Maritzuli (Biarritz), Elai-Alai (Portugalete), Haritz (Elgoibar), Gure-kai (Deba) eta Arkaitz (Añorga) taldeetako dantzariekin



batera Eibarko Kezka Dantza Taldeko 20 lagunek jardungo dute. Dantzan oinarritutako ikuskizuna izan arren, musikaren garrantzia azpimarratu zuten eta, puntu horretara ailegatuta, ikuskizunarako musika-konposizio eta konponketez arduratu zen Marian Arregi gogoratu zuten: "Bera hil eta gero eskainiko dugun bigarren emanaldia izango da Eibarkoa". Arregi ez ezik, iaz hil zen beste lagun bat gogoratu nahi izan zuten: Kezka dantza taldearen sorreran zein bilakaeran pisu nabarmena izan zuen Jose Inazio Sarasua elgoibartarra. Ikuskizunak orain arte izan duen harreara onarekin "pozik eta harrিতuta" daudela azaldu zuten, Eibarkoa "berezia" izango dela gaineratuta, emanaldi bi jarraian eskainiko duten lehen aldia izango da eta.

Koro Navarro itzultzaileak jardungo du martitzeneko Harixa Emoten saioan



Norman Manearen "Huliganaren itzulera" hizpide hartuko dute idazlearekin Harixa Emoten euskerazko irakurketa klubeko kideek Koro Navarro itzultzailearekin. Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarteak antolatutako hitzaldia martitzenean izango da, 19:00etan Portalean eta, beraz, itzulpenaren ikuspuntutik landuko dute irakurritako obra, Antxon Narbaizaren gidaritzapean. Manea idazle errumaniarrak 2003. urtean argitaratu zuen bere lanik ezagunena den "Huliganaren itzulera" ("Întoarcerea huliganului") eta dagoeneko bere herrialdeko literaturaren ikur nagusietako bat bilakatu da. Orain bere lana euskeraz irakurtzeko aukera dago, Koro Navarrok itzuli, eta Erein eta Igela argitaletxeek kalera-tu baitute, Literatura Unibertsala bildumaren barruan.

Ricardo Marin eta Manolo Garciaren taldea Ametsan

Musikagintzan 20 urtetik gora daramatzan Ricardo Marin gitarrajoleak kontzertua emango du Ametsa tabernan gaur iluntzean, 20:30ean. Berarekin batera Manolo Garciaren taldekoek joko dute, "Buenas intenciones" izenburuko lanarekin biran dabiltzala aprobetxatuta. Bere kanturik onenak hartu eta grabatu ondoren, martxoan argitara eman zuen "Buenas intenciones" izeneko CD-DVDa Marinek. Lana grabatzeko lagun ugariren kolaborazioa izan zuen: Ariel Rot, Manolo Garcia, Nacho Garcia Vega, David Summers, Miguel Rios, Los Secretos, O'Funk'illo... Zuzeneko emanaldietan laguntzen dion taldean ere goi mailako musikariak daude, hain zuzen ere Manolo Garciarekin ibilitako taldekoak. "Buenas intenciones" laneko kantuekin batera beste hainbaten abestiak eskainiko dituzte gaurko emanaldian.



DEBARREN Eguna ospatuko dute etzi

Asteburu beteaz izango dute Deban. Hasteko, gaur Kalean Kantuz-eko kideek giroa ipiniko dute kalean 19:00etatik aurrera eta 22:00etan Santa Maria elizako klaustroan kontzertua eskainiko dute Udal Musika Bandak eta Banda Gazteak. Bihar umeentzako pintura lehiaketa egingo dute goizean, eguerdian Debako gaiteroek joko dute kaleetan. Arratsaldean Euskadiko sokatira txapelketa jokatu da, umeendako entzierroa egingo da zezenzikletekin eta gauean Oskarbak berbera girotuko du. Etzi, egun handian, entzierroa izango da 09:00etan, ondoren sokamuturra, 11:00etan meza eta Ezpata Dantza San Roke ermitan. Eguerdian erraldien ordua izango da, jarraian Gure Kai dantza taldearen aurrekoa eta, amaitzeko, 19:00etatik aurrera Oskarberen musika berriro ere.



Euskal Liburu eta Disko Azoka ERMUAN

Atzoz geroztik zabalik dago Euskal Liburu eta disko Azoka Ermuan. Gaur arratsaldean 16:30etik 20:30era zabalduko dute eta bihar eta etzi, berriz, 11:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Azokaren inguruan, bestalde, hainbat jarduera osagarri antolatu dituzte: gaur 19:00etan Iñaki Carretero ipuin kontalariak saioa eskainiko du plazan eta martitzenean, 19:15ean La Basurekin solasean aritzeko aukera izango da Lobianon.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- **Mila Alberdi Sarasua**. 77 urte. 2018-V-14.
- **Carlos Fdez. de Ortega Olaziregi**. 75 urte. 2018-V-15.
- **Adela Fernandez Mesonero**. 79 urte. 2018-V-15.
- **Juanita Artetxe Urresti**. 92 urte. 2018-V-16.
- **Josefa Beristain Albizu**. 87 urte. 2018-V-16.

jaiotakoak

- **Jon Majo Aranberri**. 2018-V-13.

farmaziak

- Barixakua 18**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Zapatua 19**
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Domeka 20**
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Astelehena 21**
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Martitzena 22**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Eguaztena 23**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 24**
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Barixakua 25**
EGUNEZ **Mandiola** (San Agustin, 3)

GAUEZ BETI -2018AN-
Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

9	2	1	6	7	3	8	5	4
7	4	3	8	2	5	6	9	1
8	5	6	9	4	1	7	3	2
5	6	2	7	9	8	4	1	3
4	3	8	2	1	6	9	7	5
1	9	7	3	5	4	2	8	6
2	1	4	5	8	9	3	6	7
6	7	9	1	3	2	5	4	8
3	8	5	4	6	7	1	2	9

	5	9			3	1	2	
1							4	3
	3		4		6			
	1							5
		6				4		
7							9	
			1		2		6	
6	2							1
	8	1	9			2	7	

telefono

jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	900 30 03 40
Pesa.....	900 12 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

Barixakua 18

TAILERRA

18:00. "Arteterapia eta feminitateak". Arrate Kultur Elkartean.

MUSIKA

18:30. Musika Auzorik Auzo: DJ Arima Cool. Jazinto Olabeko plazan.

GURE ESKU DAGO

19:00/20:30. Ekainaren 10ean egingo den giza-katerako izen-ematea. Amañan (Azkena taberna parean).

KONTZERTUA

20:30. "Las buenas intenciones", Ricardo Marinekin, Manolo Garciaren taldearekin. Ametsa tabernan.

Zapatua 19

GURE ESKU DAGO

10:00/15:00. Ekainaren 10ean egingo den giza-katerako izen-ematea eta informaziorako mahaia. Untzagan.

TANTANEZ TANTAN

12:00. Euskeraren aldeko giza-katea. Urkizutik Untzagaraino.

EUSKARALDIA

13:00. Eibarko Euskaraldiaren aurkezpena. Untzagan.

BERTSO-BAZKARIA

14:00. Bertsolariak: Manu Goiogana eta Jokin Bergara. Gai-jartzailea: Desi Magro. Legarregain elkartean.

IKASTETXEETAKO PATIOAK ZABALTZEA

16:00/20:00. Arrateko Andra Mari, Amaña eta Urkizu patioak zabalduko dituzte.

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

17:00/21:00. Erakusketa kolektiboa aire librea. Estudioko erretratuak doan. Kamera minutularia. Argazki artistikoak saltzeko stand-a. Untzagan.

BISITA GIDATUA

17:00. Museoko erakusketa ezagutzeko doako bisita gidatua, euskeraz.
18:30. Bisita gidatua, gazteleraz. Armagintzaren Museoa.

DANTZA

19:00 eta 22:00. "Martin Zalakain" (Artea-Argia). 15 euro (10'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Domeka 20

KONTZERTUA

12:00. Igande musikatuak: "Versionarios" (Espainiako klasikoen bertsioak). Tarte kafetegian (Legarre, 19).

Astelehena 21

TAILERRA

17:30. Elikadura eta dieta osasuntsuak prestatzen ikasteko tailerra, Zalao Otaduyren eskutik. Minbiziaren Kontrako Elkarteak antolatuta. Portaleko sukaldean.

UMEEN BERTSO-JAIALDIA

18:00. Amaña, Iturburu eta La Salleko Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleak. Coliseoan.

IKASTAROA

19:30. Larrain-dantza ikastaroa (53. Euskal Jaia). Arrate Kultur Elkartean.

Martitzena 22

IKASTEN

16:00/19:00. Punto-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

UMEEN BERTSO-JAIALDIA

18:00. Amaña, Iturburu eta La Salleko Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak. Coliseoan.

BIODANTZA

18:30. Biodantza saioa berbalagunentzat ...eta kitto! Euskara Elkartean.

HARIXA EMOTEN

19:00. "Huliganaren itzulera" (Norman Manea). Koro Navarro itzultzailearekin saio irekia. Dinamizatzailea: Antxon Narbaiza. Portalean.

Eguaztena 23

ANTZERKIA

09:55, 10:30, 11:05, 11:40, 12:15, 14:30, 15:05, 15:40, 16:15 eta 16:50. "El diminuto teatro sobre ruedas" (Clavileño e hijos/Territorio Violeta - Madril). Debabarreneko Eskolarteko XXXIV. Antzerki Jardunaldien barruan. Untzagan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

DANBORRADA

19:00. San Juan jaietan umeen danborradan parte hartuko dutenentzat entsegua.
20:00. Helduen danborradarako entsegua. Bittor Sarasketa kalean udalak duen lokalean (Beistegi eraikinean).

Eguena 24

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza (beheko maila).
18:00. Dantza (maila altua).
19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

UMEEN BERTSO-JAIALDIA

18:00. Arrateko Andra Mari, San Andres, Urkizu eta Aldatzeko ikasleak. Coliseoan.

GURE ESKU DAGO

19:00/20:30. Ekainaren 10ean egingo den giza-katerako izen-ematea. Klub Deportiboan.

KONTZERTUA

20:30. MICE (Miren Narbaiza). Arrate Kultur Elkartearen eskutik, 53. Euskal Jaiaren barruan. Kultu tabernan.

Erakusketak

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

Maiatzaren 26ra arte:

– "TIBETEKO JENDEA" MIGUEL PARREÑOREN ARGAZKIAK (*El Corte Inglés*)

Maiatzaren 27ra arte:

- NAZIOARTEKO GIPUZKOA SARIKO ARGAZKIAK (*Untzagako jubilatuetxea*)
- VIRGINIA ARAKISTAINEN ARGAZKIAK (*Topaleku*)
- EULALIA ABAITUA ALLENDE-SALAZAR FONDOKO ARGAZKIAK (*Portalea*)
- "ELKARRIZKETAK" OSKAR MANSOREN ARGAZKIAK (*Portalea*)
- "ALISTE, MITOAK ETA ERRITUAK" FELIX MARBANEN ARGAZKIAK (*Portalea*)

Maiatzaren 31ra arte:

- ARGIZAIOLA SARIKO ARGAZKIAK (*Portalea*)
- KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAREN ARGAZKIAK (*El Ambigú*)

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (barkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak MIKEL, atzo zure lehen urtetxua bete zenduan-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, EDER, hillaren 16xan urtetxua egin zendualako. Musu haundi bat Ireni, aitta eta amaren partez.



Zorionak, NAIA, haraiñegun 11 urte bete zenduaz-eta. Asko-asko maite zaittugu. Jarraitu holakua izaten.



Zorionak, JANIRE, beti amestu genduan alabak bixar 8 urte beteko diitu-eta. Musu pillua zure gurasuen partez.



Zorionak, LUKA Unanue Thobie, bixar urtetxua egingo dozu-eta. Zure anaixa Michel eta arreba Ainhoaren partez!



Zorionak, SUGAR, bixar 7 urte beteko dozuz-eta. Patxo zaparrada etxekuen partez.



Zorionak, NAYELI, bixar 2 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, OLATZ, atzo 14 urte bete zenduazelako. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, AIORA, astelehenian 12 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ELENE, eguaztenian 6 urte bete zenduaz-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, tio IGOR eta UXUE, gure etxeko printzesa, bixon urtebetetzian. Etxekuen partetik.



Zorionak, UNAI eta OIER, zuen 8. eta 11. urtebetetzian. Musu haundi bat famelixaren partez. Ondo-ondo pasa!!



Zorionak, ANNE Lasuen, bixar urtetxua egitten dozu-eta!!! Zein bizkor pasatu dan. Aitatzxo, amatxo eta MARKELen partez.

zineaColiseoan


(1 ARETOAN)
20an: 20:00
21ean: 20:30

"Mi querida cofradía"
Zuzendaria: Marta DÍaz



(2 ARETOAN)
20an: 17:00, 20:00
21ean: 20:30

"Verano de una familia de Tokio"
Zuzendaria: Yoji Yamada



(ANTZOKIAN)
20an: 17:00 (1 Aretoan), 20:00
21ean: 20:30

"12 valientes"
Zuzendaria: Nicolai Fuglsig



(ANTZOKIAN)
20an: 17:00

"Sherlock Gnomes"
Musika: John Stevenson



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Babes Ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastero handia. Guztiiz jantzita. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 600-752732. Koldo.

1.2. Errentan

– Matrimonioak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 664-823992.
– Familia arduratsuak 3 logelako pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 632-426847.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren, 2 logelarekin. Erreferentziak. Tel. 667-060292.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Garaje itxia edo trasterodun garaje marraduna hartuko nuke alokairuan Ipuan edo Legarre inguruan. Tel. 646-369330.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 677-768682.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi malgua. Tel. 602-490595.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi malgua. Tel. 631-756284.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 632-553674.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. 662-012834.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 674-480027.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-573554.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-179116.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 699-509130.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 616-585028.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 612-450090.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-907807.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Edozein ordutan. Tel. 612-518050.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-613245.
– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 648-039187.
– Neska eskaintzen da plantxa edo garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 675-965130.
– Neska eskaintzen da plantxa edo garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 605-598999.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordutegi malgua. Esperientzia. Tel. 631-761161.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-882588.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-999079.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-739534. Daisy Joana.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Orduka. Tel. 632-524180.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 634-709827.
– Gizona eskaintzen da kamarero jarduteko (esperientzia) eta nagusiak zaintzeko. Tel. 605-469989.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 631-706846.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 643-138471.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 642-595265.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 600-099460.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gida-baimenarekin. Tel. 678-213696.
– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 689-855193.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 635-587617.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 603-498605.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-197831.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita gauzez ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-891709.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserrian lan egiteko, igeltsero-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 684-173729.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 629-889465.
– Neska eskaintzen da lan egiteko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-565350.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 688-635166.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-261395.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 631-377989.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 643-225084.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 632-952947.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pintore lanetarako. Tel. 631-104714.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 600-840833.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 612-411026.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-482203.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-835745.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 697-809908.
– Mutila eskaintzen da igeltsero jarduteko eta ingururak zaintzeko. Tel. 631-665008.
– Neska eskaintzen da nagusiak gauzez zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 671-763558.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako eta pegorak garbitzeko. Tel. 602-022174.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-493758.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Formazioa eta esperientzia. Tel. 671-989434.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 664-337457.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta animaliak pasiatzeko. Tel. 642-827097.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta animaliak pasiatzeko (arriskutsuak gobernatzeko lizentziarekin). Orduka. Esperientzia. Tel. 664-823992.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-258718.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-130135.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 626-407923.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– LH eta DBH klase partikularrak ematen ditut. Euskaraz, gaztelerez edo ingelesez. Banaka eta taldeka. Tel. 685-282496.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.3. Galdu/Aurkitu

– LG mugikorra galdu dut Errebal eta Legararren artean. Liburu estalki beltzarekin. Aurkitu baduzu, deitu. Tel. 943-201294.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eu

Hyundai SUV Gama. Zuk aukeratutakoa.



TUCSON 17.900€ tik aurrera

SANTA FE 26.715€ tik aurrera

KONA 13.990€ tik aurrera

Dagoeneko zure mugak gainditu, handia den zerbaitekin bat egin eta intentsitatez bizi zaitezke. Eta, horrez gain, zelan egin nahi duzun aukeratu dezakezu Hyundairen SUV Gamak eskaintzen dizkizun aukeren artean. Puntakoena aukeratzekotan, KONA Berrira aukeratu duzu. Estiloak, konektibitateak eta abangoardiako diseinuak inspiratuko zaitue edonora joanda ere. TUCSON Hyundairekin jokabide, diseinu eta prestazioen artean konbinaketa biribila erakusten duen modeloaren arrakastarekin gozatuko duzu. Eta, azkenik, handiena, SANTA FE Hyundai: sofistikazioa, espazioa eta luxua azken detaileraino. **Zuk aukeratutakoa da.**

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIZKOARAKO
www.oarsocar.com

ELGOIBAR
OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

Olaso Polig., 17
BEASAIN
Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

943 74 14 80
IRUN
Juan Thalamas, 43
943 63 97 69



TUCSON Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6 - 7,5. SANTA FE Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 149-174. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,7 - 6,6. KONA Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 117-153. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,2 - 6,7.

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan TUCSON 1.6 GDI 96,4 kW/131CV 4x2 BLUE2 ESSENCE (17.900€), SANTA FE 2.0 CRDI 150 CV (110,4kW) 4x2 ESSENCE 7 jarleku (26.715€) eta KONA 1.0 TGD 120CV (88,3kW) 4x2 ESSENCE (13.990€) autoentzati. BEZ, garrailoa, matriculazio-zerga, sustapeneko deskontua, partikularrentzat, Banco Cetelem S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxienean epean eta 36 hilabeteko gutxienean egonaldiarekin TUCSON-en kasuan, 16.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxienean epean eta 36 hilabeteko gutxienean egonaldiarekin SANTA FE-ren kasuan, eta 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxienean epean eta 36 hilabeteko gutxienean egonaldiarekin KONA-ren kasuan. Finantziazioa finantza-erakundeak aztertuta eta onartu behariko du. Eskaintza 2018/06/30era arte da baliozkoa. Irusten diren modeloak: TUCSON Style, SANTA FE Style eta KONA Style. Mantentzeak ibilgailuaren finantziatzailei lotuta. * Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai-ren sare ofizialak salduko Hyundai ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbiztu-pasaporteen baliidatzen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantentzeak eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es web-orrian.

Lanerako gertu!

2018-2019

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

75

75 URTEZ JAKINTZA SUSTATUZ
ETORKIZUNA ERAKITZEN

Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 23 18:00

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmh
gmh.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91





ESLABAN eraikuntzen eraberritze proiektuetan espezializatutako enpresa da. Soluzio pertsonalizatuak kalitate gorenarekin eta zerbitzu bermerik handienarekin eskaintzen dizugu.

■ Igogailuen instalazioa eta eraberritzea, oztopo arkitektonikoen ezabatzea...

- Eraikuntzen eraberritze lanak: fatxada eta estalkien zaharberitzeak.
- Eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko eraberritze lanak.

B
www.NewBEE.eu

ESLABANen helburua, bezeroen behar zehatzei irtenbide egokiena ematea da, eta martxan jarritako eraberritze lan guztiak kalitate eta profesionaltasun maila handienarekin aurre egingo diogunaren bermea eskaintzea.

Otaola, 27 esk. eskuma. 3º ezkerre. ■ Apdo. 160
20600 Eibar (Gipuzkoa)

Telf.: (+34) 943 820 407 ■ Fax: (+34) 943 820 724
E-mail: info@eslaban.com

www.eslaban.com